

91

4 euro • 2004ko URRIA euskal heziketarako aldizkaria

hh


ELKARRIZKETA: JESUS COSIDO •
ESPERIENTZIA: 5 URTEKO HAURRAK
MEZU ELEKTRONIKOAK BIDALTZEN
• "BIDELAGUN" ETORKINEKIN •
BAIONAKO BERNAT ETXEPARE LIZEOA

hik hasi



GAIA

Ilargiaren sekretua
Hik Hasiren luzemetraia



*Hiru bidaia graziana
sorginarekin denboran
zehar, sorgin-ipuinak
entzunez eta
sorgin-kantak ikasiz.
Kalitatea dario testuari
eta kalitatea ilustrazioei.*





gaia

BEGIRADAREN HEZIKETA ESKOLAN

Haurrentzako euskarazko fikziozko luze-metraiara bat egin berri du Hik Hasi: Pirritx eta Porrotx pailazoekin. Arlo horretan zegoen hutsunea betetzera dator. Eta horrekin batera, eskolan irudiaren larketa bultzatzera.



elkarrizketa

JESUS COSIDO

Bartzelonako terapeuta humanista da eta hik hasi udako topaketa pedagogikoetan *Estresa irakaskuntzan* ikastaroko emaitzetako bat izan zen. Gai horren inguruan eskamentu handia du.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

BEGIRADAREN HEZIKETA ESKOLAN

18 elkarrizketa

JESUS COSIDO

26 esperientzia

5 urteko haurrak mezu elektronikoak idazten

Donostiako Jakintza eta Azkoitiko Xabier Munibe ikastolako haurrak harremanetan

29 kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan
"Bidelagun" etorkinekin

Itziar Aramaio

33 berriak

40 Muga guztien gainetik... euskaraz!
Baionako Bernat Etxepare lizeoa

Euskararen gotorlekua

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408

Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Airhoa Azpiroz Erredakzioa: Joxe Mari Auzendi, Ixiar Eizagintze Erredakzio batzordea: Mikel Estomba, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Jaione Apalategi, Abel Ariznabarreta, Begoña Bilbao, Marian Bilbatua, Felix Basurko Aines Duafau, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erricndo, Iobia Fernandez, Anaia Vazquez, Iontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Gobilu. Diseinua: TRAM•Graf!k Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: "Euskadi kultura desberdinek hezkuntzan topo egitearen alde" ekitaldia Kursaallean (Hik Hasi). Aldizkari honek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren egokitasun-aitormena du. Data: 2004-IX-21. Kopurua: 3.500 ale

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

INGELESEK

ingelesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

A Smelly Flower From a Refined Family

By CAROL KALISKY TOWN

After about 2000 years of gradual accretion, we have today the English of international usage as I guess I should say that it is the dominant form of English. But there is something about the English of the United Kingdom that is more than just a matter of words. It is a matter of style and taste. It is a matter of being able to use the language in a way that is both elegant and effective. It is a matter of being able to use the language in a way that is both elegant and effective. It is a matter of being able to use the language in a way that is both elegant and effective.

There is a very old story that the headmaster of the school, Mr. Brown, once said to the boys of the school, "You are all very clever, but you are not very good at using the English language."

For many years, the school was a very good one. The boys were very clever and very good at using the English language. But then one day, the headmaster said to the boys, "You are all very clever, but you are not very good at using the English language."

There is a very old story that the headmaster of the school, Mr. Brown, once said to the boys of the school, "You are all very clever, but you are not very good at using the English language."

ESPAINOLEK

espainolez irakurtzen dituzte eguneko berriak

► Cuatro personas fueron detenidas tras nueve horas de disturbios

ABANDIA, 28 JUN

Las autoridades locales de Euzkadi han informado de la detención de cuatro personas tras nueve horas de disturbios en el barrio de Abandía, en el municipio de Bermeo.

Los hechos se produjeron el día 27 de junio, cuando un grupo de personas se congregó en la plaza de San Sebastián, en el barrio de Abandía, para celebrar una manifestación en apoyo de los derechos de los inmigrantes.

Según se informó, los disturbios comenzaron a las 18:00 horas y se prolongaron hasta las 03:00 horas del día 28 de junio.

CONDUCENCIA

El Ayuntamiento de Bermeo ha informado de la detención de cuatro personas tras nueve horas de disturbios en el barrio de Abandía, en el municipio de Bermeo.

FRANTSESEK

frantsesez irakurtzen dituzte eguneko berriak

de l'histoire du XX^e siècle

BERRIA

Le 28 juin 2011, le journal BERRIA a été publié en français. Ce journal est le premier d'une série de publications qui ont pour but de rendre accessible à un plus grand nombre de lecteurs les informations et les analyses de BERRIA.

Le 28 juin 2011, le journal BERRIA a été publié en français. Ce journal est le premier d'une série de publications qui ont pour but de rendre accessible à un plus grand nombre de lecteurs les informations et les analyses de BERRIA.

EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak

Egin zaitez harpidedun:
 943 30 43 45
harpidetza@berria.info

editoriala

urria

Denborak erakusten du bidea eginez egiten dela



Badira une aproposak egindakoaz hausnartzeko, asmatutako ildoak indartzeko, hanka-sartzeak zuzentzeko edota alboratze-ko eta asmo berriak nola bideratu erabakitzeke.

hik hasiri hamargarren ikasturtean iritsi zaio.

Eta hamar. Aurtengoa hamargarren ikasturtea izango da hik hasirentzat.

Nork pentsa lezake hasiera haietan hik hasik hamar urte iraun zezakeenik? Bai, denborak erakusten du bidea eginez egiten dela.

Atzera begiratu eta aldizkaria zenari euskaraz jolasteko lanak lagundu ziola ikusten dugu. Hainbat musika irakasle eta eurek prestatutako ikasleak grabaketa etxetara eraman genituen, abesten zuten bitartean diskoa nola osatzen zen bertatik ezagutzeko aukera izan zutelarik. Horrela burutu genituen *Haur-jolasen abestiak I, II eta III* lanak. Eta jolas horiek irakasten hik hasiko bi kide ibili ziren ikastetxez ikastetxe.

Jarraian, euskal abestietan oinarritutako hainbat musika metodo plazaratu genituen: *Txirulaz, Gitarraz, Ostadarren hotsaz, Eskusoinuaz eta Pianoaz*.

Ipuinen arloan ere ekarpena egin nahi izan genuen eta disko bat argitaratu genuen esaldi zaharrez, olerkiz eta

abarrez aberastuta.

Irakasleen lana errazteko, aberasteko eta hornitzeko ahaleginean, bi urtetik behin *Euskal Herriko Baliabide Pedagogikoen Gida* argitaratzen dugu.

hik hasi proiektuaren bizkarrezurra aldizkaria bada, azken bost urte hauetan Udako Topaketa Pedagogikoen sona handia hartu dute. Udaro ikastaro mordoa antolatzen dugu gure hizkuntzan. Eta bertan eskaintzen diren ikastaroen artean aukeraketa bat eginez, material erabilgarria biltzen duten hainbat ale monografikok ere argia ikusi dute.

Beste lanen artean, eta udaletako euskara teknikariek in batera, gazteei euskara erabiltzen laguntzeko dauden programak jasotzen dituen *Gazteak eta euskara* liburua argitaratu genuen.

Horiek guztiak hezitzaileen artean baldin badira ezagunak, eskolaz kanpokoek *Zatoz jolastera!* eta *Jolasen altxorra* bideoak dituzte ezagunago.

Ibilbide horretan, eta hain ezagun izan ez bazen ere, garrantzi handia izan

zuen guretzat Hezkuntzaren Gizarte GUNEAK egin zuen lanak; euskal hezkuntzaren inguruko hausnarketa sakontzen ahalgindu baitzen.

Eta zer erronka dugu aurrera begira? Orain artekoari heldu, hobetu eta urrats berriak ematea.

Une honetan, udan grabatzen aritu garen luzemetraia prestatzen ari gara, eta Elbira Zipitria andereño historikoari buruzko liburua argitaratzeko asmoa dugu.

Erronka nagusia euskal hezkuntza hobetzeko interesa dugun guztion artean eztabaida zabala sustatzea litzateke, eta hori gauzatzeko gure esku dagoena egiteko prest gaude.

Orain artekoa irakasleen erantzun onari esker atera badugu aurrera, gerora ere horren esperantzan gaude. Harpideen aldetik jaso dugun babes eta heldulekua ere ez ditugu ahanzten. Eta nola ez, gure eskerrik handiena ibilbide lagun izan ditugun Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazo taldekoei.

kronika

Eskola sartzearekin batera ikusi da, beste behin ere, Iparraldeko euskarazko irakaskuntzak duen laguntza urria. Seaskak ordu gehiago eskatu ditu ikasleen gorakada ikusita: Ziburuko Piarres Larzabal kolegioan 20 bat eta Baionako Bernat Etxepare lizeoan gela bat. Baina ez dute deus jaso orain arte. Hautetsien Kontseiluko Hizkuntza gaitarako arduradun Max Brisoni eta Alain Lamassoure presidenteari helarazi zizkien euren eskariak konponbide bat bilatzen saia daitezten. Bordeleko Errektoretzarekin ere bildu ziren Seaskako arduradunak, baina ez zuten ezer onik atera. Orain, Hezkuntza Ministeritzara begira jarrita daude, bitartean mobilizazioak egiteari utzi gabe. Ikas-Bik, bestalde, epaitegietara jotzeko asmoa agertu du bi arrazoi direla-eta: bata euskarazko irakasle ordezkarien auzia eta bestea zuzendari euskaldunek jasaten duten diskriminazioa. Lehenengo kasuan, irakasle ordezkariak ez direla garaiz iristen edo ailegatzen diren asko ez direla euskaldunak salatu dute. Hirugarren arrazoi bat ere ikusten dute auzibidea abiatzeko: gela berriak ez irekitzea.



Oraindik konpontzeke Gasteizko udal haur es- kolen afera

Irailaren 1ean hasitako grebak bere horretan jarraitzen zuen aldizkari honen erredakzioa itxitako egunean: 71 hezitzaile greba mugagabea eta 17 haur eskoletako 1.500 haurrak etxean.

Auzia uztailaren 27an hasi zen, Alfonso Alonso alkateak dekretu baten bidez udal haur eskolen egoera aldarazi zuenean. Ondorioetako bat langileen lan baldintzen aldaketa izan zen. Langileek udaleko gainontzeko langileek bezala 1.592 lanordu eskatzen zituzten, baina dekretuak ez zuen horrelakorik jasotzen. Hori gutxi balitz, ikasurte berrirako lan poltsak 32 langilekalean utzi zituen, hots, langileen % 70.

Beste ondorio bat haur eskolen iza-

eraren aldaketa zen; eskola hezitzaileak izatetik asistentzialak izatera pasatzen baitzen.

Euskarari dagokionez ere dekretuak ondorio ezkorak ditu. Lehen HE3 beharrezkoa izatetik, orain lehentasuna izatera pasatzen da. Eta ez da gauza bera beharrezkoa izatea, edo lehentasuna izatea.

Langileek, gurasoek eta eragile sozialek mobilizazio ugari egin dituzte eta Arartekoarekin ere bildu ziren. Euren aldarrikapena haur eskola euskalduna, hezitzailea eta herritarra bultzatzea da.

Irailaren 7an oposizioak eta alkateak itun politikoa lortu zuten, eta hiru puntu adostu ziren: dekretua etetea, hilaren 30a bitartean lan talde bat biltzea haur eskolen ereduaz adostasuna bilatzeko (talde horretan talde politikoez eta gobernuaz gain, sindikatuak eta Denon Eskola guraso elkarteak daude) eta greba bertan behera gelditzea.

Azken puntu hori ez da gauzatu, eta bitartean kontu berriak ere agertu dira: Gasteizko udaletxeko idazkariaren legezketasun txostenak ondorioztatu du udal haur eskoletako lanpostuen sorrera buruzko erabakia ez zela udal gobernuak egin beharrezkoa, udalbatzak baizik. Ondorioz, sindikatuek eta oposizioko alderdi politikoez dekretua bertan behera uzteko eskatu dute. Alkateak udalbatzaren eskumenak bereganatu dituela salatu dute.

Euskal curriculum espezifikokoan hutsune handiak ikusi ditugu

Xabier Garagorri



Sakanan Lanbide Heziketa euskaraz egiteko aukera eskatzen dute

Sakanako Aralarko Mikel Donea ikastetxeko ikasleek eta Sakanako mankomunitateko arduradunek Nafarroako Parlamentura jo dute Lanbide Heziketa euskaraz egin nahi dutela aldarrikatzeko. Parlamentuko Hezkuntza Batzordearen aurrean egin dute eskaera, baina mementoz ez dute baiezkorik jaso; ez Batzordearen aldetik eta ezta Luis Campoy Hezkuntza kontseilariaren aldetik.

Ikastetxean egindako inkestaren emaitzak oinarritzat harturik, euskaldunen artean % 97k euskarazikasi nahi du, eta euskara ez dakitenen artean, jakingo balute, euskarazikasiko luketela erantzun du % 79k. Gaur egun G ere-

dua soilik dago Nafarroako Lanbide Heziketan, hots, gaztelaniazko eredu. Euskararen Legeak, nahiz eta hizkuntza eskubideak ez bermatu, zonalde euskaldunetan D eredu ezartzeko aukera ematen du, baina errealitatean ez da halakorik gertatzen. 235 zikloetatik bi baino ez dira euskaraz, eta 8.000 ikasletik 73 ari dira euskaraz ikasten.

Hezkuntza kontseilariak Nafarroako Parlamentuan egin zuen agerraldian esan zuenez, *"kalitateak kezkatzen nau ni; ikasleak ongi presatzea enpresetan sar daitezen"*, euskara eta kalitatea bateraezinak izango bailiran.

Horrez gain, Elizondoko eta Bera-ko zentroetan irakasle gehienak elebidunak direla aipatu zuen, *"eta ikasgelan euskaraz aritu daitezke. Zer gehiago nahi dute? Liburuak euskaraz?"*.

Hezkuntza Batzordeko CDN eta IUN-NEB alderdiko kideak harrিতa agertu ziren Sakanako egoeraren aurrean. EAJk seriotasuna eskatu zion Nafarroako Gobernuari, eta Aralarrek bat egin zuen Sakanako ikasleen eta mankomunitateko ordezkarien eskaerarekin.

Iaz *Lanbide heziketa euskaraz!* lelopean kanpaina egin zuten. 1.500 sinaduratik gora lortu zituzten euskarazko irakaskuntzaren alde. Aurtengo ikasturtearen hasierarekin batera, Parlamenturaino iritsi dira euren eskaerak. Dagokien eskubidea aldarrikatzen jarraituko dute hemendik aurrera ere.

Ikasturte berria hastearekin batera, Anjeles Iztueta Hezkuntza sailburuak hainbat datu eman ditu ezagutzera. Lehendabizi, euskararen eta hizkuntza eredu-
buruzkoak. Aurten ere D ereduak gora egin duela jakinarazi du. 3 eta 5 urteko haurren % 61,4 euskara hutsean arituko da.

Oro har, A ereduaren % 8,4 arituko dira, B ereduaren % 41,2 eta D ereduaren % 50,3.

Ikasturte honetan hizkuntz plangintza berezia jarriko da abian irakasleentzat euskaraz treba daitezen eta norberaren ikasgai-
izan beharreko euskararen ezagutza finka dezaten. Deialdi horiek Iraileran barruan egingo dira.

Emandako bigarren datuak 2003-04 ikasturtean ikasleek izandako emaitzei buruzkoak dira. Ikasleen % 86k lortu zuen iaz DBHko titulua, aurreko urtean baino 4 puntu gehiago. Emaitza hobekien lortzearen arrazoiak lau direla aipatu zuen: dibertsifikazio kurrikularreko programak, bikoizketa gelak, hezkuntza esku-hartzeak eta errehabilitazio proba berezia.

Europar eskola porrotaren adierazlea berdefinitu egin da: 18-24 urte bitartean DBH tituluekin soilik zenbat gelditu diren neurtuko da hemendik aurrera. Une honetan % 18,5 da eta helburua % 10era iristea da. Euskal Autonomioa Erkidegoan % 12,6koa da kopuru orokorra, eta nesken kasuan % 8,1.

Aurten ebaluazioaren ikasturtea izango da, eta abenduan nazioarteko bi neurketen emaitzak jasoko dira.

Begiradaren heziketa eskolan



Filmaketa egun batean Hernaniko Zelai-Gain baserrian bertako aitona-amonekin, Tiburtzio Iradi eta utzi berri gaituen Liberata Otaegi.



Ba al dago euskaraz eginiko fikziozko filmarik haurrentzat?

Galdere horren aurrean zaila da baiezkota aurkitzea; alde batetik euskarazko produktioa ez delako ugaria, eta bestetik, datuak biltzeak ikerketa lan bat egitea eskatzen duelako. Azken urteotan euskaraz egindako marrazki bizidunak ikusteko aukera izan dugu, baina 1992az geroztik ez da inudi errealeko euskarazko luze-metraiarik egin. Eta are gutxiago haurrentzat.

Zentzu horretan, Hik Hasi ekarpen berri bat egin nahi izan du euskal zinemagintzaren arloan. Haurrentzako euskarazko eta Euskal Herrian egindako pelikularik apenas zegela ikusirik, erronka horri heldu dio eta horren emaitza izango da abenduan bideo eta DVD euskarrian kalean izango den *Ilargiaren sekretua* luze-metraia. Estreinaldiak Euskal Herriko hiri eta herrietan egingo dira.

Atzera begirajarri eta Euskadiko Filmmoteka eta beste zenbait iturri kontsultatu ondoren, euskaraz egindako produktioen zerrenda ez dela luzea ohar gaitzke. Badaude euskaraz egindako marrazki bizidunak; batzuk laburmetraiak eta beste batzuk luze-metraiak:

- *Ekialdeko izarra* (1977), Juanba Berasategi
- *Pernando Amezketarra* (1979), Juanba Berasategi
- *Kalabazatripontzia* (1985), Juanba Berasategi
- *Ipar haizearen kondaira* (199), Juanba Berasategi
- *Ahmed, alhambrako printzea* (1997), Juanba Berasategi
- *Karramarroaren uhartea* (2000), Joxean Muñoz
- *Unibertsolariak* (2003), Juanjo Elordi

Badaude euskaraz egindako filmak helduentzat:

- *Erreferenduma* dokumentala (1978), Antxon Ezeiza
- *Ehun metro* (1986), Alfonso Hungria
- *Zergatik Panpox* (1986), Xabier Elorriaga (azken bi horiek erdaraz fil-

matu ziren eta euskaraz bikoiztu, gero)

- *Hamaseigarrenean aidanez* (1985), Anjel Lertxundi
- *Oraingo ezan gabe* (1986), Jose Julian Bakedano
- *Kareletik* (1987), Anjel Lertxundi
- *Ke arteko egunak* (1989), Antxon Ezeiza
- *Offeko maitasuna* (1992), Koldo Izagirre

Ikuska Sailak 20 laburmetraia egin zituen irudi errealekin eta dokumental izaerarekin 80ko hamarkadan zehar hainbat gairen inguruan: Gernikako bonbardaketa, elebitasuna, euskara galdutako Nafarroa, Bilboko hirigintza, ikastolak, Euskal Tebistaren sorrera, bertsolaritza... Denak Antxon Ezeizak kudeatu zituen zinemagile gazteei eta ez hain gazteei atea irekiz: Juanba Berasategi, Montxo Armendariz, Imanol Uribe, Iñaki Eizmendi, Jose Luis Egea, Anton Merikaetxeberra, Pedro Olea... Argazkilaria lanak Javier Agirresarobek egin zituen. Film hauek sari asko irabazi zituzten.

Badaude bikoiztutako edo itzulitako marrazki bizidunak eta fikziozko filmak haurrentzat; *Doraemon*, *Glup*,



G

Tinko eta Berton Filmsek ikastetxeetan lantzeko itzulitako filmak... Baina haurrentzat euskaraz egindako irudi errealeko fikziozko filmetan ezer gutxi.

Aukera berri bat

Hik Hasi egitasmoaren helburua euskal hezkuntzan sortzen diren beharrei nolabait erantzuten ahalegintzea da. Orain arte aldizkariekin, udako topaketekin, lan monografikoekin, baliabide pedagogikoen gidekin, euskal jolasen CD eta bideo bildumekin eta abarrek egin dugun bezala, orain, film bat aitzakit hartuta, irudia eta berarekin doana lantzea da gure nahia, aldi berean, ikusten dugun hutsunea betez. Eta hori guztia bertako bitartekoekin, baliabideekin, aktoreekin eta gure ikuspegiarekin, Euskal Herrian bertan eginga.

Inudiaren lanketan dagoen hutsunea bete nahi da

Gaur egun, jakina da irudiak gero eta garrantzi handiagoa duela bizitzako arlo guztietan, eta nola ez, baita hezkuntzan ere. Hori hala izanagatik, irudiaren lanketa eta berarekin hedatzen diren balioak, intentzioak, portaerak eta abar apenas lantzen diren eskolan. Eta horregatik, hori guztia lantzeko material pedagogikoa prestatzen ari gara.

Ilargiaren sekretua filma oinarritzat hartuta, hiru arlo landuko dira. Hasteko, irudiaren hizkuntza. Irudiek eu-

ren konposaketa, denbora, espazioa, plano motak, enkoadraketa, efektuak, muntaia... dituzte eta hori irakurtzen eta interpretatzen jakitea garrantzitsua da. Bigarrenik, pelikulako hizkuntza dago. Hizkuntza literariotik edo hasierako gidoitik irudien hizkuntzara eta gidoi teknikora salto bat dago. Hitzen ordez irudiak erabiltzen dira, eta hizkuntza hori desberdina da. Biak azalduko dira material pedagogikoan; hots, hizkuntzaren alde literarioaren aberastasuna, espresioak, hitz jokoak... eta hori nola dagoen adierazita pelikulan. Eta hirugarrenik, edukiaren arloa dago. Alde horretatik, hausnarketa sustatu nahi da: zer ulertu den, zer mezu, nola, teknikak, eguneroko bizitzarekin zerikusia duen ala ez... Hainbat mezu eta balio helarazten dira, eta film honen kasuan kritikotasuna, aktibo eta iniziatibaduna izatea, elkarrenganako errespetua, etorkinekiko harremana, natura errespetatzeko sentibilitatea, kontsumismoa eta botere grina agertzen dira, besteak beste.

Beraz, material pedagogikoaren xedea pelikula deskribatu eta tripak ateratzea izango da, hiru arlo horiek nola egin diren ikusteko eta ikasteko.

Kolorez, misterioz eta tentsioz betetako istorioa

Ilargiaren sekretua filmeko protagonista nagusiak Pirritx eta Porrotx pailazoak, Sidi haur sahararra, Euskal He-

rriko haurrak eta Madame Banu gaiztoa dira. Honek eta bere bi laguntzaileek ilargiak gauero jendea konturatu gabe isurtzen dituen loreak nahiko dituzte, naturari eta pertsoneri bizitzeta eta kolorea ematen dieten loreak. Lore guztiak eurentzat nahi dituzte botere magiko handiak dituztelako. Horretarako, lur-reko lore guztiak biltzeaz gain, ilargiari kortxo batez tapatuko diote ahoa. Horrela, ilargia haziz, gizenduz joango da eta ilargi bete denean, potoloen dagoenean, tramankulu batekin zurrupatuko dute, barruan dituen lore guztiak eurentzat izan daitezten eta handik aurrera loreak beraientzat bakarrik egin ditzan.

Bitartean, haurrak lore baten bila dabiltza Sidi haur sahararraren arreba txikia sendatzeko, lorea sendagarri baita. Konturatu gabe, gaiztoen asmoak deskubrituko dituzte, eta ilargia bera osatu nahiko dute loreak sortzen jarrai dezan eta natura lehenera itzul dadin. Baina... ez da hain erraza izango, gaiztoen asmoari aurre egin beharko baitiote.

Euskal Herriko aktoreen larra

Pirritx eta Porrotx pailazoekin batera aritu diren haurrak Donostiako Zurriola ikastolako Antzerki Eskolako bost gaztetxo izan dira, eta beraien irakasle Joserra Fachadok eta Anartz Zuazuak ere parte hartu dute. Madame Banu emakume gaiztoa Mertxe Rodriguez pailazo taldeko aktoreak interpretatu du eta bere bi laguntzaileak Ramon Agirre eta Niko Lizeaga dira. Nagore Orbeltzuk, Mailu Arrutik eta Lasarte-Oriako Landaberi antzerki eskolako gurasoek ere paper esanguratsua jokatzen dute.

Gidoia egiten aritu direnak Maialen Lujanbio eta Alicia Garaialde izan dira, eta azken hau aritu da zuzendari lanetan. Musika Xabier Zabalak egin du.

Filmaketa lanetan Iruñeko ITPko kideak aritu dira, *Zatoz jolastera!* eta *Jolasen altxorra* bideoetan bezala.

Parte hartu duten batzuen iritziak bildu ditugu, euren esperientzia nolako izan den jakiteko.





Maialen Lujanbio Gidoilaria

Ez da gauza bera pelikula bateko gidoia egitea edo ipuin bat idaztea. Pelikulakoak beste logika bat du. Horixe dio Maialen Lujanbiok, film honen gidoia egin duenak. Lehenengo istorio literarioa egin behar izaten da, eta gero hori ikus-entzunezko lengoaiara pasa. Prozesu horretan taldekideen laguntza eta Alicia Garaialde zuzendariaren lana funtsezkoak izan ditu. Argi dauka talde lana izan dela. *“Hasiera-hasieratik izan da hala. Taldean bildu eta ideien bonbardaketarekin hasten ginen. Nire lana hortik aukeraketa bat egitea eta elkarrekin jostea zen, ideia solteetatik zerbait landuagoa eramatea hurrengo bilerara”*. Ideiak bildu, ordenatu eta forma literarioa ematea, alegia.

Baina hori ikus-entzunezko lengoaiara pasa behar zen, eta horretarako, Maialen eta Alicia elkarlanean hasi ziren, eta bien artean egin dute egitura. *“Istorioak goia non jo behar duen, non eten behar den, zer gorabehera jarri behar diren... hori guztia ikusi behar da”* gehitzen du Aliciari. *“Memento batzuetan arrisku uneak behar dira, beste batzuetan dena galduta dagoela sentitu behar da... Horrelako gauzek ematen baitiote indarra kontaktari”*.

Beti esan izan ohi da gidoia klabea dela, izugarriko garrantzia duela, eta hala dela dio Maialenek. *“Gidoian jartzen duenaren arabera egiten da filmatzea: han jartzen dituen espazioak, han jartzen dituen elkarrizketak... dena horren gain dago. Txosten baten*

G A I A

Begiradaren heziketa eskolan

G



arabera aritzen dira denak lanean, eta zerbait aldatuz gero, kontuz ibili behar da, hiruzpalau tokitan izan baitezake ondorioa eta koherentzia mantendu behar baita”.

Pailazo taldea

Pirritx eta Porrotx pailazo taldearentzat ere esperientzia eta erronka berria izan da. *“Proiektu interesgarria eta oso polita da, eta gustura aritu gara”* diote.

Zergatik hartu zenuten film honetan parte hartzeko erabakia?

Aurretik Hik Hasiko *Zatoz jolastera!* eta *Jolasen altxorra* bideoetan parte hartu genuen. Hura guretzat salto bat izan zen, desberdina baitzen gure emaldiak antzeztea eta bideoa grabatzea; gidoi bat zegoen, filmaketa... Eta oraingoan, beste salto bat eman dugu. Hau luzematraia da eta guretzat ere erronka berri bat.

Zergatik erronka berri bat? Zer desberdintasun ikusi dituzue bideoetatik film honetara?

Bideoetan, nahiz eta gidoia egon, jolasek pisu handia zuten. Oraingoan, ostera, gidoiak pisu handiagoa hartzen du. Askoz ere konplexuagoa da eta horrek filmaketa guztia aldatzen du: lokalizazio gehiago, jende gehiago... Filmaketa denbora ere bikoitza izan da.

Horrez gain, euskaraz egindako film gutxi daude haurrentzat eta ausarta iruditu zaigu Hik Hasiren erronka. Hasieratik agertu gara prest gure ekarpena egiteko.

Aurrekoetan zuek zineten protagonista nagusiak haurrekin batera. Oraingoan aktore profesionalak ere agertzen dira. Zer eragin du horrek?

Emaitza aberastu egiten duela uste dugu. Gure paperari ez dio garrantzirik kentzen; aitzitik, osagarri dira eta kalitatea igotzen dute euren profesionaltasunarekin, eta horrek azken emaitzaren kalitatea ere hobetu egiten du.

Nola moldatu zarete Zurriolako antzerki eskolako aktore gazteekin?

Zurriolako antzerki eskolako haurrekin lan egitea “luxu” bat izan dela esan liteke. Oso onak dira. 9-10 urteko haurrak izateko, nabari zaie antzerki

munduan ibilbide bat egina dutela.

Ez da gauza bera gertatu Sidi haur sahararrarekin. Orain dela 3 urte etorri zen Euskal Herrira eta nahiz eta euskaraz jakin, ez da aktorea eta ezta antzerkian ibilia ere. Erronka handia zeukan eta oso ondo moldatu da. Horrekin batera, benetan etorkina izanik, errealitatearen eta fikzioaren arteko paralelotasuna sortu da.



Mertxe, zuk orain arte pertsonaia zintzoen papera egin duzu eta oraingoan, lehenengo aldiz, gaiztoarena. Nola sentitu zara?

Oso ondo. Probatzeko gogoz nengoen eta gozatu egin dut. Pila bat gustatu zait. Hemendik aurrera gehiagotan egin beharko dut gaiztoarena.



Ramon Agirre: "umorea eta umeak oso serio hartu beharreko kontuak dira"

Ramon Agirre aktore ezagunak Madame Banu gaiztoaren laguntzaile papera egin du Niko Lizeagarekin batera. Pirritx eta Porrotx pailazoekin aritu den lehen aldia izan da, eta berak aitortu digunez, haien jarraitzaile sutsua da, "ia-

ia gure alaba Marta bezain sutsua". Ilusio handia egin zion parte hartzeko deia jasotzeak.

Duela urte batzuk *El rey de la granja* filmean esku hartu zuen, hura ere haurrentzakoa, baina normalean ez du haurrentzat lan askorik egin. "Film honetan barruan daukadan umea atera eta ahalik eta ondoen egiten saiatu naiz".

Proiektua oso erakargarria iruditzen zaiola aipatu du Ramon Agirrek. "Oso ondo pentsatua dagoela uste dut, bai eduki aldetik eta bai denetik. Kalitatezkoa da eta txukun egina. Kalitatea eta maila bermatzen duten elementu asko ditu. Bat aipatzearen, Maialen Lujanbiogidoilari izatea. Plazer hutsa izan da berak idatzitako elkarrizketak esatea. Talentu asko zegoen tartean". Lana txukun eta serio egiteari ematen dio garrantzia aktore honenek. "Zeren umorea eta umeak oso serio hartu beharreko kontuak baitira. Nik uste dut hemen oso serio egin dela lana eta produktu oso duina eta interesgarria izango dela. Ez dut dudarik egiten".



Joserra Fachado: "Adin honetako hurrekin horrelako lan asko egitea pixka bat kaltegarria dela pentsatzen dut"

Donostiako Zurriola ikastolako antzerki eskolako bost gaztek eta Joserra Fachado eta Anartz Zuazua irakasleek parte hartu dute *Gaueko lorea* filman.

Antzerki eskola horren hastapeneko pausoak orain dela 25 urte eman zituen Montxo Imazek. Bera hasi zen es-



kolak ematen talde txikiei. Handik 12 urtera matrikula asko igo zen eta antzerkirako areto propioak eskuratu zituzten. Zurriola ikastolak antzerki proiektuan sinestu zuen. Eta geroztik, izugarritzko martxan dabil.

Memento honetan bost irakasle (Montxo Imaz, Anartz Zuazua, Mikel Sarriegi, Maider Oiartzabal eta Joserra Fachado) eta 250 ikasle ditu antzerki eskolak. Horietatik 200 Zurriola ikastolakoak bertakoak dira, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik hasi eta DBHko 4. mailara artekoak. Gainontzeko 50 kanpokoak eta ikasle ohiak dira, bi gazte talde eta hiru amateur.

Joserra, nolako esperientzia izan da zuretzat pelikula honetan parte hartzea?

Niri gauza berri bat egiteko aukera eman dit. Denbora pila bat neraman *Goenkalen* Isaias-en papera egiten eta oso gustura aritu naiz beste pertsonaia baten lekuan.

Zer iritzi duzu proiektu honi buruz?

Niri gidoia asko gustatu zitzaidan irakurri nuenean. Printzipioz oso polita iruditu zitzaidan pil-pilean dagoen gai sozial horri aurre egitea pedagogikoki eta ikasleei begira. Ideia oso ona iruditzen zait.

Nola ikusi dituzu haurrak?

Oso gustura. Zinea oso gogorra da

berez, ordu asko pasatzen dira eta oso aspergarria da. Jendeak pentsatzen du filmatzea soilik dela, eta ez da hala. Filmatzea gutxien egiten dena da; denbora gehiago pasatzen da argia prestatzen, kamera kokatzen...

Eta hori horrela izanik ere, oso gustura ikusi ditut, ez ziren aspertzen. Profesionalak ziruditen.

Zer aportatu die haurrei?

Beraientzat oso aberasgarria izan da arlo askotatik. Antzerkia egiten ohituta daude, baina bai telebistak eta bai zineak beste dimentsio bat ematen dute. Antzerkiarekin zerikusia dute, aktorearen lana beti rol batean sartu eta interpretatzea delako. Baina neurriak ez dira berdinak. Jendearen aurrean antzeztea gauza bat da eta kameraren aurrean, kokaleku konkretu batean, beste gauza bat. Kamera aurrean askoz naturalistagoa izan behar da, antzerkian gauzak askoz handiago egin behar dira. Kamera aurrean planoak askoz motzagoak dira, edozein keinu txiki ikusi egiten da... Beste aldaera bat da. Beraz, esperientzia berria izan da haurrentzat.

Erakargarria iruditzen al zaie haurrei film batean parte hartzea?

Bai, batzuetan liluratu egiten du telebistan eta zinean ateratzek, baina ez du itsutu behar. Ondo hitz eginda eta ondo planteatuta oso esperientzia aberasgarria izango da beraientzat, oso positiboa. Baina ondo neurtzen ez bada, ez.

Kasu honetan ondo neurtu da. Beraiek oso pozik daude, eta gurasoekin hitz egin dudanean ere hala adierazi ditate. Ez dira nekatu eta primeran pasa dute.

Zer esan nahi duzu ondo neurtzearekin? Zer arrisku ikusten duzu, bada?

Adin honetako haurrekin horrelako lan asko egitea pixka bat kaltegarria dela pentsatzen dut. Adibidez, telebista serie baterako haur bat hartzen dutenean eta udan grabatu behar bada, oporrik gabe gelditzen da, hondartzara joan gabe, bere lagunekin jolastu gabe... Asko ordaindu behar du ekintza horretan parte hartzeagatik eta esperientzia

G A I A

Begiradaren heziketa eskolan

G

hori edukitzeagatik.

Horregatik, garrantzitsua deritzot oreka bat bilatzeari; hau da, parte hartu bai, baina ez eguneroko gauza batean, ez ordu pila bat, ez gauean edo desorduetan... Mimatuz egin behar dira haur horiek; ez produkzioan sartu eta sartu. Ez da gehiegikeriarik egin behar. Lehenetsuna eman behar zaie euren grabaketei eta orduei, eta ez da beti hala gertatzen. Ondorioz, jendea erre egiten da.

Jende askok jotzen al du zuen antzerki eskolara aktore gazteen bila?

Egia da gure antzerki eskola erreferentzia bihurtzen ari dela eta jendeak guregana jotzen duela. Ondorioz, haurrek gero eta casting gehiago egiten dute eta hori ona da, ez dira urdurijartzen, normaltasunez hartzen dute. Gainera, gero eta gehiago etortzen direnez, aukerak denen artean banatzen dira: batzuei telebistarako deitzen diete, beste batzuei luzemetraietarako, besteei laburmetraietarako, iragarkitarako beste batzuei...

Zer iritzi duzu casting-ei buruz?

Guk gauza batzuk argi ditugu. Gure lana ez dugu egiten gero jendea cas-

ting-ak egitera etortzeko eta haurrak zinemara edo telebistara eramateko. Guretzat ez da garrantzitsua eta gure helburua formazioa da. Besteak kanpokoetik etortzen dira.

Guk oso garbi daukagu inoiz ez dugula aukeraketarik egingo. Guretzat denak dira gure seme-alabak. Batzuek bat bidaltzeko eskatzen digute, eta guk ezetz esaten diegu. Etorri, ikusi guztiak eta aukera dezatela beraiek. Federico Lupirekin hori gertatu zen. Bost haurrekin egin nahi zuen proba eta ezetz esan nion, denei egiteko edo bestela ez egiteko. Eta azkenean guztiak ikusi zituen, 35.

Beraien artean inbidiarik edo sortzen al da?

Nik uste dut lehiarik ez dagoela. Guk beraiekin hitz egiten dugu lehia horretan ez sartzeko. Eta nik uste dut lortu dugula. Tokatzen zaionari tokatzen zaio eta kito. Beraiek ere gero eta naturaltasun handiagoarekin ikusten dute. Bati tokatzen zaio eta denok pozten gara. Guk hori asko zaintzen dugu, gure erritmoa eta gure filosofia mantentzen ditugu; ez gara erotuko kanpoko eskaintzengatik.



Fito Rodriguez: "Irudien arloan alfabetatu gabe gaude"



Zinemari eta eskolan, bi gaietan jarduna da EHUKo Fito Rodriguez irakaslea, eta berarengana jo dugu bi mundu horien arteko lotura eta harremana nolakoa den eta nolako izan beharko lukeen argitzeko.

Irudiak gaur egun duen garrantziaz jabeturik, nola ikusten dugu eskola horren aurrean?

XX. mendearen 20ko hamarkadan hasi zen zinemaren komertzializazioa eta hori kultura berri bat sortu zen, gaur egun ezinbestekoa bihurtu zaiguna. Irudiaren presentzia abiadura handiz areagotu da, ziztu bizian garatu da, eta beti eskolatik kanpo. Eskolak mesfidantza izan du horren aurrean.

Zergatik?

Zazpigarren artea delako, hasieratik mespretxuz tratatutako zerbait; beraz, ez kultura bezala, eta ondorioz, ez zen eskolatzea merezi zuen ezer. Horrez gain, dibertimendua zen, eta eskolak dibertimendua kanpoan utzi izan duen bezala, irudia ere bai. Hezkuntza arloan ez da aintzakotzat hartua izan.

Horrek zer ondorio ekarri du?

Irudien arloan alfabetatu gabe egotea. Eskolan erlijioa, etika, hizkuntza eta abar irakasten dira, irakurtzen ikasten da, irakurketa hori sostengatzeko gramatika bat, sintaxi bat... eta ondorioz, gure kultura letratuan alfabetatuak gaude. Baina irudien testuen kasuan ez. Ez dugu ikasi behar den bezalako irakurketarik egiten irudien testuen aurrean; hau da, irakurketa kritikoa eta konparatiboa. Modu naturalean, berez edo intuizioaren bidez jokatu

izan dugu, alfabetatu gabe.

Zer ulertzen duzu irudiaren arloan alfabetatzearekin?

Alfabetatuak ez du esan nahi irakurtzen eta idazten jakitea soilik, baizik eta irakurketa eta idazketaren bidez munduaz jabetu ahal izatea. Alfabetatzearen bitartez ez dugu munduaren egia lortzen, baina mundua interpretatzeko gai gara. Gauza bakoitzak zer esan nahi duen argitzen digu alfabetatzeak, eta modu kritikoan, konparatzeko aukera ematen digulako.

Orduan, ez daukagu gakorik irudien esanahiaz jabetzeko. Ez daukagu ardatzik irudien arteko konparazioak egiteko. Nola konpara genezake ez baldin badakigu interpretatzen? Ez baldin badakigu irudien mintzaira ulertzen?

Dena dela, intuizioa aipatu duzu lehen, eta horrek interpretatzeko bide bat ematen du, ezta?

Bai, noski, baina interpretazio subjektibora garamatza, eta agian laguntzeko orde z gehiago nahastuko gaitu. Hori frantsesa jakin gabe frantseseko testu bat irakurtzea bezala izango litzateke. Euskaraz irakurtzen dugun bezala irakurriko genuke, intuizio fonologikoaren arabera, baina ez litzateke gutiz zuzena izango.

Gauza bera gertatzen da filmeekin. Pelikula guztietan agertzen dira esanahiez betetako irudiak. Abididez, eskailerak edo zuhaitzen hostoak erortzen. Horiek badaukate berez, sintaktikoki eta egitura aldetik esanahi bat. Eskailerak ikusten direnean arrisku bat badatorrela esan nahi du. Hostoak erortzean eta orbel bihurtzean, norbait gogoeta egiten ari dela esan nahi du. Irudiaren mintzairan erabiltzen diren funtsezko metaforak edo baliabideak

dira. Baina jendea zinemara doa jakin gabe eskailera bat ikusten duenean zer esan nahi duen. Esanahia bilatzen edo interpretatzen jakin beharko genuke, baina eskolak ez digu biderik eman.

Eta eskolaren zeregina al da hori?

Eskolaren zeregina da mundu jakin batean bizi ahal izateko eta mundu hori ulertu ahal izateko funtsezkoa den guttia irakastea. Orain arte funtsezkoa zen irakurtzen eta idazten jakitea. Eta gaur egun, irudi bat irakurtzen eta interpretatzen jakitea ere funtsezkoa da, gure gizartea espektakulu gizartea baita, ikusle osoz osatutako gizartea.

Ikusle horiek ez dute ispiluaren (espektakuluaren) atzean dagoena ikusten. Nolabaiteko babesik gabe aurkitzen da egungo eskolatik ateratako gizakia. Alegia, espektakulu mundu honetan gauzak ulertu ahal izateko, interpretatzeko eta kritiko izateko baliabideak eskuratu gabe.

Gaur egun irudien alfabetatzea eskolatik kanpo uztea eskolaren egokitzapen eza areagotzea besterik ez litzateke izango.

Orain arte zer egin da?

Eskolak ez ditu erakutsi zinema, literatura eta abar eskolan kontsumitzeko, eskolaz landa baizik. Era berean, zinema, telebista eta irudiarekin osatzen den informazioa, eta beraz, formazio bidea, etsaitzat hartu izan du eskolak, eta mugimendu zentripetu bat sortu da. Filma eskolara eramanez nahi izan du eta hori eskolatu, literaturarekin egin duen bezala. Hori kasu hoberenetan. Baina ez du erakutsi, esate baterako, kartelera

Begiradaren heziketa eskolan

aurrean kontsumo aske bat lantzen. Horri ez dio garrantziarik eman.

Dena dela, nik uste dut ahaleginak egin direla, baina eskolak duen estiloarekin: jakintza motak diziplina eta ikasgai bihurtuz. Alegia, bere testuingurutik kanpo ateraz eta beste jakintza arloetatik edo ikasgaietatik bereiztuz. Eta askotan, ez soilik jakin gabe besteetan zer egiten den, baizik eta besteen kontra.

Eskolak mundua disezcionatu egiten du eta ikasgaiak sortzen ditu. Horrela, matematikak ez du zerikusirik giza zientziekin, eta giza zientzietan erakusten dena hizkuntzan ematen denarengandik guztiz aparte dago. Badirudi, egungo eskolan duintasuna lortzeko, ikasgai bihurtu behar dela. Eta ez dut usate hori bidezkoa denik zinema edo irudien alfabetatzea behar bezala egiteko.

Zer eta nola egin behar du zure ustez?

Esperientzia eta biografia ugari daude hainbat herrialdetan. Frantzian, esate baterako, oso landuta dago bai eskoletan eta bai eskolatik at. Laguntza handia jasotzen du estatuaren aldetik eta merkatuan ere kultur salbuespentzat hartzen da bertako produkzioa bultzatzeko xedez.

Italian, Burkina Fason, Kuban, Magreben, Argentinan... garrantzia handia ematen diote zinemari hizkuntzagatik, kulturagatik eta egungo irudiaren mundura hurbiltzeko gaitasuna ematen duelako. Horiek ezagutu eta gurera egokitu eta baliagarri suertatu behar zaizkigu. Esperientziak ikusi, gure diseinuak egin eta hori landu behar dugu.

Kultura eta hizkuntza aipatu dituzularik, zer ekarpen egin lezake euskal zinemak arlo horretan?

Gure hizkuntza modernizatzeke eta egungo mundura egokitzeke funtsezkoa den baliabidea izan liteke, eta edonork baino premia handiagoa dugu horretan, hizkuntza gutxitua delako gurea.

Horrez gain, aipatu beharrekoa da Euskal Herrian sortutako zinema, euskaraz egindakoa eta Euskal Herriari bu-

ruzkoa ez dela ezagutu ere egiten. Ez gara gure ondare kulturalaren jakitun.

Zentzu horretan, Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen industriari buruzko liburu zuria egin duenean, nik uste dut ez dela behar bezala ulertu euskal zinemaren afera. Ikus-entzunezkoen barruan azpi atal batean sartu da, eta euskal zinema ez da azpi atal bat, baizik eta guk zinema ikusteko daukagun begirada. Planteamendu horretatik gutxi espero liteke. Ez da urratsik eman normalizazio bidean.



Bibliografia

* Euskal zinemari buruzkoak:

- Askoren artean: *Zinema Euskal Herrian*, Jakin, 144. zenbakia, 2004ko iraila-urriko monografikoa.

- IZAGIRRE, Koldo: *Gure zinemaren historia petrala*. Susa, Zarautz, 1996.

- LARRAÑAGA, Koldo/CALVO, Enrique: *Lo vasco en el cine (las películas)*. Filmoteka Vasca/ Euskadiko Filmategia, Caja Vital Kutxa Fundazioa, Donostia, 1997.

- LARRAÑAGA, Koldo/CALVO, Enrique: *Lo vasco en el cine (las personas)*. Filmoteka Vasca/ Euskadiko Filmategia, Caja Vital Kutxa Fundazioa, Donostia, 1997.

- ROLDÁN LARRETA, Carlos: *El cine del País Vasco de Ama Lur (1968) a Airbag (1997)*. Cuadernos de cinematogra-

fía, Eusko Ikaskuntza-EHU, 1999.

- SANTIAGO De, Pablo: *Cien años de cine en el País Vasco (1896-1995)*. 1995ko Becerro de Begoa saria, Arabako Foru Aldundia, 1995.

* Eskolan erabiltzeko proposamenak:

- VELA LEÓN, Juan Antonio: *Cine y mito, una indagación pedagógica*. Didáctica Hermes, 2000.

- GONZÁLEZ MARTEL, Javier: *El cine en el universo de la ética. El cine-forum*. Alanda-Anaya.

* Bestelakoak:

- CASTIELLO, Chema: *Huevos de serpiente. Racismo y xenofobia en el cine*. Talasa, 2001.

Egungo identitatearen bilaketan dagoen arrisku handiena, arrazakeria-rena, saihesteko proposamenak biltzen dira liburu honetan.

- DONDIS, D. A.: *La sintaxis de la imagen. Introducción al alfabeto visual*. Editorial Gustavo Gili, 1985.

Alfabetatzeko proposamena egiten du. Irudien testuaz jabetzeko, interpretatzeko, argitzeko, eta haien egitura zer den ulertzeko bideak ematen ditu.

- RIVERA, Juan Antonio: *Lo que Sócrates diría a Woody Allen*. 2003ko Espasa Saiakera saria. Cine y Filosofía, Espasa.

Azken Espasa saiakera saria hau izateak zerbait esan nahi du. Egilea filosofia irakaslea da eta filosofiaren irakurketa egiten du zinemaren bitartez. Filosofiarako baliagarri izateaz gain, kultura osoari buruz aritu ahal izateko ideiak ematen ditu.

- *Voces y culturas. Cine, identidad y cultura* – Revista de comunicación, 13. zenbakia, 1998ko 1. hiruhilekoa.

Zapaldutako kulturek beren nortasuna eta bidea aurkitzeko zinemak duen garrantziak du gaitzat. Kubako, Burkina Fasoko eta Magrebeko adibideak ditu.



Xabier Portugal, Pasaia-Lezo lizeoko irakaslea eta zinemari aditua

Pasaia-Lezo lizeoan hainbat gauza jorratu dituzte irudiaren munduan, normalean Xabier Portugal irakasleak xirikatuta. Zinema munduan murgildurik dabil aspaldian eta zaletasun hori bere lan lekura ere eraman du. Aurtengo ikasturtean proposamen berri bat egin du eta gogotsu ekin diote. Begiraden heziketa edo irudien irakurketak landuko dute.

6. mailako haurrekin eta Plastikako orduetan landuko dute irudiaren mundua. Ez dira zinema munduan bete-betean sartuko, hori baino lehen irudiaren irakurketa landuko dute. Izan ere, Xabier Portugalek dioenez, *“nahiz eta haurrei zein helduoi zinema asko gustatu eta ilusio handia egin kamera hartzeak, horra iritsi aurretik beste pauso batzuk eman behar direla iruditzen zaigu. Orduan, ikastolek prestaturiko curriculumean agertzen den bezala, begiraden heziketatik edo irudiaren irakurketatik abiatu gara eta hori izango da ardatz nagusia”*.

Haurrek gertutik bizitzen dute irudiaren mundua; bideo jokoak direla, Internet dela, telebista, iragarkiak... Irudiaren irakurketarekin zerikusia du-

Pasaia-Lezo lizeoaren erronka

ten hamaika gauza daude, bai irudi finkoarekin eta bai mugimenduan oinarritutako irudiarekin. Eta horiek lantzea izango da abiapuntua, gero, azkenean, errealizazioan bukatu ahal izateko.

Nordik eta nola hasi?

Irudiak lortzea erraza izan arren, gero horiekin zer egin? Nola landu? Nola erabili? Gaur egun ez dago pistak eman ditzakeen materialik eta norberaren esku gelditzen da prestaketa lana. Teorian denok konbentzita gaude irudiak izugarritzko garrantzia duela gaur egun. Baina 19 haurren aurrean jarrita, zer egin? Nola landu hori?. Hori da irakasleen kezka. Baliabide eta esperientzia faltak kezkatzen ditu, errekurtsio gutxi edukitzeak.

Pasaia-Lezo lizeoan Xabier Portugalek programazio bat prestatu du irudiak lantzeko, eta zerbait gehiago ere bai. *“Izan ere, heziketa arloan beti aipatzen dugu gure helburuetako bat haurraren nortasun kritikoa lantzea dela, baina gero ez dakigu nola egin hori, nola landu. Orduan, iruditzen zitzaigun helburu pedagogiko hori lortzeko oso interesgarria izan zitekeela irudiaren irakurketatik hastea”*.


Prestatu duten programazioan urratsez urrats gauzak egiten eta ebaluatzen joango dira. Lehenengo egitekoak zehaztuta dauzkate.

“Hasteko, haurrei galdetuko diegu zein esparrutan topatzen diren berriak irudiarekin. Has daitezela aipatzen: telebistan, egunkarietan, Interneten, iragarkietan, liburuetan, aldizkarietan, zinemari, bideo jokoetan...” azaltzen digu Xabierrek.

Ondoren irudi finkoa eta mugimenduan oinarritutakoa bereizten ikasiko dute. Jarraian, hausnarketa bat planteatuko dute: ea ikusten dituzten irudiek

errealitatea den bezala islatzen duten edo ez. Eta gogoeta horren ondoren, irudiarekin zer-nolako tranpak egin daitezkeen ezagutaraziko zaie, jakin dezaten ikusten dugun guztia ez dela errealitatearen isla.

“Arlo hori informatikarekin lotu nahi dugu” dio Xabierrek. *“Badakite ordenagailuz idazten, eta horrekin soilik ez gelditzearren, irudiarekin ere gauzak egiten ikasiko dute: eskaneatzen, manipulatzeko, Photoshop programarekin geruzak aldatzen... Erne egon daitezela irudiaren aurrean”*.



Azalaren ondoren, mamia aztertzeraz

Hasierako azterketa eta gogoeta horien ondoren, irudien mezua aztertuko dute. Helburua da ikasleak ohi-tzea irudiek esaten dutena ikusten eta irudiak interpretatzen. *“Beraiek kontatzen dezaten zer ikusten duten eta zergatik uste duten horrela daudela jarrira irudiak. Izan ere, argazkiek bigarren zentzu bat izaten dute maiz, eta hori kontuan izan dezaten nahi dugu. Esate baterako, irakiarrak torturatu zituen AEBko emakumezko soldadua epaitegira joan zenean, argazkietan haurdun agertzen zen beti. Horrekin zerbait gehiago adierazi nahi da. Beste egunkari batean titular hau jarri zuten: ‘Musikaren egun europarrak kaleak erritmoz bete ditu’. Argazkian orkestra bat ikusten zen eta aurrean aulki guztiak hutsik”.*

Mezuaren irakurketa horiek egiteko egunkariak, aldizkariak eta abar egokiak dira, eta baita iragarkiak ere, noski.

Planifikatzen ere jakin behar da

Hurrengo maila edo urratsa planifikatzen ikastea izango da. Zinema bi koordinadetan garatzen da: espazioa eta denbora. Beraz, bi arlo horiek landuko dituzte.

Espazioari dagokionez, planifikazioa dago, hau da, garrantziaren arabera irudi bat edo bestea aukeratzen da. Adibidez, pertsona baten irudi osoa, er-taina, aurpegia soilik... Denborari dagokionez, hainbat kontzeptu daude: plano sekuentzia, elipsia, azelera-zioa...

Eta azkenik.. errealizazioa

Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera eman nahi zaie ikasleei, eta horretarako hiru ekintza aurreikusten dituzte:

1- Kartelak egingo dituzte inauterriak iragartzeko.

2- Komikigintza: plano desberdinak daudela eta mezuaren interesen arabera bata edo bestea aukeratzen dela ikasi ondoren, hori guztia komiki ba-



tean praktikan jartzeko aukera izango dute. Adibidez, pertsonaiak gauza garrantzitsu bat esaten duenean plano hurbila erabili beharko dute. Ezpatarekin borrokan ari badira, berriz, gorputz osoa agertzea egokiagoa da.

3- Euskarazko antzerkiaren grabaketa. 6. mailan antzerkia egiten dute urtero, beraiek sortua edo liburu batetik aukeratua. Aurten antzezkiuna grabatu egingo dute. Horretarako, planifikatu egingo dute zein plano erabili eta abar.

Hiru ekintza horiez gain, ordenagailuan egin ditzaketen irudiaren manipulazioa ere landuko dute lan praktikoko bezala.

Ez da gauza puntuala

Nahiz eta lan hau 6. mailan egin, Xabier Portugalek garbi dauka ez litzatekeela maila horretara mugatu behar. *“Uste dut horrek programazio osoa eskatzen duela, behetik hasi eta goraino. Eta beharbada DBHn edo Batxilergoan Artearen Historia lantzen hasten direnean, honen jarraipena izan beharko luke. Irudiaren mundua prespektibarekin lotu daiteke, edota inpresionismoaren eta espresionismoaren arteko desberdintasunak ikusteko baliotzeko. Era berean, uste dut 3. edo 4. mailakoekin beste gauza batzuk*

egin beharko litzatekeela. Baina dena programaketa zabal baten barruan, eta ez solte”. Horrek zera dakar: irudiaren lanketa hezkuntzan present egon beharko lukeen arloa izatea, eta ez irakasle baten esku geratzen dena.

Xabier Portugal:
“Heziketa arloan beti aipatzen dugu gure helburuetako bat haurraren nor-tasun kritikoa lantzea dela, baina gero ez dakigu nola egin hori. Helburu pedagogiko hori lortzeko, uste dugu oso interesgarria izan litekeela irudiaren irakurketatik hastea”

G A I A
Begiradaren
heziketa eskolan

G


jesus cosido

Terapeuta humanista
Couselling-en espezializatutako
aholkulari pertsonala



“Prozak gutxiago eta Platon
gehiago da hemen behar duguna

”



Irakasleak galdu egin du lehen zuen duintasuna. Mehatxu egiten duten haurrak, sandiosenak esaten dizkieten haurrak dituzte gaur gelan. Eta gurasoek 'zuk zergatik egin diozu hori nire haurrari' da esaten dutena; haurraren bistan, gainera! Balio aldaketa bat dago. Haurra jabetza gisa hartzen dugu, beraz, haurra zigortzea gurasoa zigortzea da

Bartzelonako terapeuta humanista da Jesus Cosido. Arkitekturari jardun zuen hamar urtez lanean, harik eta benetan gustatzen zitzaiona pertsonak berreraikitzea zela konturatu zen arte.

Estresari buruzko ikastaroa eskaini zuen uztailean Hik Hasiren Ubako Topaketa Pedagogikoetan. Irakasleen gremioa da estresa gehien sufritzen duenetako bat. Baja askoren beste motibo bat, berriz, depresioa da. Ondo konplexua da gizakia. Gure argitzailez jakin nahian jodugu terapeuta honengana, eta autoestimua, komunikazioaz, emozioei bide emateaz, benetan nor garen jakiteaz... mintzatu zaigu. Bizitzaren eskolan derri gorrezkoak diren ikasgaiak.

Estresa orokorra da gizartean, baina irakasleen sektoreak joera gehiago du estreserako. Zergatik?

Irakasleak galdu egin du lehen zuen duintasuna. Hori medikuei ere gertatu zaie; gaur denek jartzen dute zantzaz medikuaren lana, eta horrek estresera eramaten ditu, erabateko angustia, hutsik txikiena eginez gero, gaur egun denak gainean dituztelako. Irakasleena ere izugarria da: mehatxu egiten duten haurrak, sandiosenak esaten dizkieten haurrak dituzte gaur gelan. Eta gurasoek "zuk zergatik egin diozu hori nire haurrari!" da esaten dutena; haurraren bistan, gainera!

Lehen erabat kontrakoa zen gurasoen jarrera: "Ume, ez dezadala jakin zigortu zaituztenik!". Ordukoa gehiegizkoa zen, haurrak ez zuen ez inolako eskubiderik, ez babesik. Baina gaur beste muturrera joan gara. Eta gaurkoa, nahiz irakasleak sufritu, haurraren beraren kaltetan da azkenean. Haurrak jaun eta jabe dela uste du, baina lanera jarrera horrekin joaten denean kalera botako dute.

Lehen gurasoek ez zuten irakaslearen aurrean haurrari beti arrazoi emateko jarrera hori. Eta orain zergatik?

Balio aldaketa bat dago. Haurra jabetza gisa hartzen dugu: "Nire haurra ez duzu zuk zigortuko!". Beraz, haurra zigortzea, gurasoa zigortzea bezala da, jabetza hori erasotzea baita. Eta bizi maila hobetzeak ere horrekin zerikusirik duelakoan nago, jendea gero eta harroagoa da, urguilu gehiago duena.

Estresak batzuetan zerikusi handia omen du autoestimua baxuarekin...

Pertsona batzuek behar baino ordu gehiago sartzen dituzte lanean, besteek "zer ondo, zurekin kontu genezake, mundiala zara, zu gabe zer egingo genuke..." esatea behar dutelako; hala-koak entzunda maitatuak sentitzen dira, maitatuak izateko bidesari bat ordaindu behar balute bezala. Jakina, azkenean horiek lepo estresatuta eta frus-



tratuta bukatzen dute, adarra jotzen dietela konturatzen baitira, eta euren bizkar uzten dutela dena.

Hori ez da lantokian soilik gertatzen, familian ere gertatzen da. Laguntza nork eskatuko bizi direnei gertatzen zaie, beste senideen karga euren bakkarririk hartzeko pronto daudenei. Egun, emakumeak etxetik kanpora autoestimua irabazi du. Baina emakumea etxetik irteten ez zenean, aintzat hartzen zutela sentitu behar zuen, martiri izanez. Zoritxarrez, oraindik ere familian laguntza behar denean, berehala emakumeengana jotzen da.

Lehengo emakumeak aipatu dituzu. Gaur estres gehiago al dago lehen baino, ala lehen ez zen hori zaintzen eta horregatik iruditzen zaigu gaurko gaitza dela?

Estresa beti egon da. Gertatzen dena da gaurkoa oso gizarte lehiakorra dela. Karrera bukatu orduko master bat egin behar duzu, edo graduatuondoko ez dakit zenbat ikastaro, izugarri exijitzen dizutelako. Horrek antsietatea sortzen du, eta antsietatea estres bihurtu daiteke. Lanean hasi, eta berdin: izugarri errenditza iritsi beharra duzu, bestela zu baino gehiago denak postua kenduko dizu. Lehia gustuko duen jendea ere bada, zurrunbilo horrek martxa handia ematen diona. Baina beste asko egoera honek txikitu egiten ditu. Gizartea bera da estresera eramaten zaituena. Gainera, susmoa dut dena ez ote dagoen pro-



pio prestatua jendea estresa dadin, estresatuak lan gehiago egiten baitu. Horregatik dira gaurko film guztiak hain azkarrak, hainbeste bortizkeria dutenak, musika hain altukoak. Dena korrika, dena ozen, dena azelera zaitezten. Lasaitasuna gure gizarte honen kulturaren sartzan ez den zerbait da. Hainbestera, non estresatuta ez bazaude porrotaren errege, alfer hutsa sentitzeko tranpan eror baitzaitezke.

Estresa dutenekin zer terapia egiten duzue?

Estresa lantzea zera da: aztertzea nolako den pertsona baten bizitza, nola hartzen duen bizitza, zer autoestimua duen, zer jokabide dituen eta zergatik dituen jokabide horiek; eta aldatuko balitu zer gertatuko litzatekeen, zer beldur sortzen zaizkion aukera horien aurrean...

Bizitzan oinarritzko hiru eremu daude: eremu profesionala, familia eremua eta eremu soziala (kaleko harremanak, lagunekikoak). Pertsona hori eremu bakoitzean nola moldatzen den ikertu beharko litzateke, eta ea gaitasunik baduen eremu bat bestearengandik bereizteko, batzuetan etxeko arazoa eramaten baitugu lanera, edota jendearekin jarrera agresiboak izaten baititugu etxean eta lanean gaizki gaudelako.

Estresari aurre egiteko, zer bizi ohitura aldatu behar dira?

Bata autoestimuari dagokiona da, lehen aipatu bezala; behar baino lan

Estresa beti egon da. Gertatzen dena da gaurkoa oso gizarte lehiakorra dela, eta gizartea bera dela estresera eramaten gaituena. Gainera, susmoa dut dena ez ote dagoen propio prestatua jendea estresa dadin, estresatuak lan gehiago egiten baitu



WKalean elkarrizketa asko zegoen lehen, eta pertsonari aintzat hartzen zituztela sentitzen laguntzen zien horrek; kaleko berriketa horien bidez pertsonaren dimentsio soziala bideratua zegoen. Kultura greko-latindarraren herentzia da, Europan oso tipikoa. Galtzen ari gara hain gurea eta hain osasuntsua den hori

gehiago ez egitea, ezlantokian eta ez familian. Aldatu beharreko beste jokabide bat entretenitzeko modua da. Leku lasaietara jo (mendira, itsasora...). Eta hitz egin. Kalean elkarrizketa asko zegoen lehen, eta pertsonari aintzat hartzen zituztela sentitzen laguntzen zien horrek; kaleko berriketa horien bidez pertsonaren dimentsio soziala bideratua zegoen. Herrietako ezaugarria da hori, Europan oso tipikoa dena. Baina galtzen ari gara hain gurea eta hain osasuntsua den hori. Liburu batek dioenez, *“Prozak gutxiago eta Platon gehiago”* da hemen behar duguna.

Hain osasuntsua den kaleko bizitza hori galtzen ari gara, amerikartzen ari gara...

Bai. Gero, amerikarrek liburu bat idazten dute nola bizi ondo esanaz, eta hemen betidanik egin izan duguna da esplikatzen dutena. Haiek ez dute guk hiriaz dugun kontzeptua (plazak, elkartzeko guneak); guk kultura greko-latindarraren herentzia jaso dugu, arietan hitz egiteko, saltzeko, eztabaidatzeko kultura hori. Euren hiriak, berriz, etxebizitzaren pilaketak dira, egoteko ez diren kale eta plazak dituztenak. Jakina, horrek neurosira eramaten zaitu; hiri handietan jende andana dago, baina ondoan pasatuta inork ez dizu adiorkik egiten. Igogailuan sartu eta inork hitzik ere ez. Existituko ez bazina bezalaxe da. Kalean gurutzatzean zakurrek elkar usaindu behintzat egiten dute; guk hori ere ez!



Ikerketak egin izan dituzte, kamera ezkutuan jarrita, hiri handietan jendearen arteko portaera zein den ikusteko. Adibidez, horietako batean pertsona batek bota du lurrera bere burua, bihotzekoak jo duen itxurak eginez, eta pertsona hori bertan gelditu da, inork lagundu ez diolako.

Hiri handietan komunikazio falta dago. Horrek zer ondorio ditu?

Komunikazioan lau maila daude. Bata komunikazio xumea da, igogailukoa (*“ederra eguraldia...”*). Komunikazio maila hori herrietan oso bizirik dago, eta oso maila apalekoa izanagatik ez da gutxietsi behar, pertsonari aintzat hartzen dutela sentitzen laguntzen diolako (*“existitzen naiz, hitz egiten didate”*). Zahar etxeetan edo ospitaleetan komunikazio maila horri eusten ahalegintzen dira asko, duen garrantziagatik. Komunikazioan bigarren maila da zuk gauzei buruz hitz egitea, baina zeure buruaz hitz egin gabe. Hurrengo maila da jada zeure gauza propioez hitz egiten duzunean. Eta bada laugarren maila bat, maila gorena, komunikatzen diren bi pertsonak hazi egiten dituen pertsona bezala. Lor daitete bikote harreman on batean, laguntasun on batean, gidari espiritual on batekin... pertsona bezala hazi egiten zarenean harekin hizketan, hari entzunez.

Hiri handietan, batzuetan ez dago lau maila horietatik bakar bat ere! Zer gertatzen da orduan? Jende asko dagoela gaixo. Eta komunikaziorako zailtasun hori, hutsune hori batzuetan talde terapien bidez ordezkatzeko da. Moduren batean ase behar dute komunikazio beharra.

Oraindik ere gizonei gehiago kostatzen al zaie euren arazoez hitz egitea?

Hik Hasiren Udako Topaketetan soilik ez, beste ikastaro guztietan ere emakumeak gehiago izaten dira gizonak baino. Gero, kontsultetan, ordea, gizon-emakumeen kopurua erdia eta erdia izaten da. Baina egia da orokorre-





an gizona uzkurragoa izaten dela terapiara joateko urratsa ematerakoan, eta kontsultan bertan ere gizonari gehiago kostatzen zaio bere barne mundua irekitzea.

Doluan nabarmen ikusten da: senar-emazteak kontsultan sartzen dira, semea hil zaiela-eta. Senarrak botako du: *“Nire emaztea da kontsulta behar duena, txikituta dago; nik jada onartua dut”*. Handik pixka batera galdeetzen diot emazteari: *“Eta zure senarra, zer moduz dago?”*, eta emazteak: *“Ni baino okerrago!”*. Gizonok halako larderia giro batean hezi gaituzte, eta garesti ordaintzen da hori, nonbaitetik atera behar baitu. Batzuetan psikosomatismo oso gogorrak, oso larriak izaten dira, tristura eta inpotentzia sentimenduok ez direlako bideratu modu positiboan.

Heziketan emozioa eta emozioak ondo bideratzea gehiago landuko babiliz, psikologoak gutxiago beharko al irateke?

Jendeak bere emozioak ondo bideratuko balitu eta familian laguntza sare bat izango balu, askok ez luke ez psikologorik, ez terapeutarik beharko. Egia esan, jendeak bere sentimenduak adierazteko duen ezintasunetik dezente bizigara gu.

Doluari dagokionez ikusten da hori ondo, paradigmatikoa da. Alargunek garbi esaten dizute: *“Nik etxean ezin dut ezer esan, alabak ez baitit uzten”*.

Etxekoen erreakzioa gehienetan honakoa izan ohi da: *“Ez egin negarrik, nahikoa da, jada sei hilabete pasa dira eta ezin duzu beti honela egon...”*. Eta emakumeak, erreprimetuta, etxean ezin du negarrik egin. Eta saio batzuetara etorri behar du negar egin ahal izateko, askatzeko. Tristeza da. Utzi lasai negar egiten, kexatzen, kuxin batzuketzen, egunkariak txikitzen...

Laguntzeko modurik onena da entzutea, helduleku bat ematea, bere mina onartzea eta, batzuetan, baita bere buruari onartzen ez dizkion emozioak hautematen laguntzea ere. Esaterako, penari buruz hizketan ari zaizun bitartean, ikusten duzu mahaiari kolpea ematen diola, eta jabetzen zara amorrutxo ere badagoela hor. Inork *“zuk penaz gain, amorrutxo ere baduzu, ezta?”* esango balio, bada agian baietz esango luke, zuk halakorik esatea onartu diozulako.


Emozioak garrantzitsuak direla onartzen orain hasi gara. Orain arte lehenetasuna arazoak izan du, emozioaren arabera jokatzeko gauza txartzat jo dugu beti (zer eta, lehendabizi emozioak bultzatuta jokatzen dugunean!). Arrazoiaren eta emozioaren artean elkarriketa batek egon behar du, emoziozko inteligentzia on bat lortzeko.

Dolua sentitzen ari direnekin umorea ere erabili izan duzu...

Ehorztetxe batean egin nuen lan ia bi urtez. Tarrasako ehorztetxe batek

Umorea
erabili izan dut
dolua sentitzen ari
zirenekin ere.
Heriotza baten
aurrean, oso
garrantzitsua da
dolua sentitzen ari
denak barre egiteko
gaitasuna ere
baduela onartzea,
ez ukatzea
gaitasun hori. Barre
horiek oso sanoak
dira





Gizonei
gehiago **W** estatzen
zaie beren barne
munduaz hitz egitea.

Halako larderia giro
batean hezi gaituzte,
eta garesti
ordaintzen da hori,
nonbaitetik atera
behar baitu.

Batzuetan
psikosomatismo oso
larriak izaten dira,
tristura eta
inpotentzia
sentimenduok ez
diarelako bideratu
modu
positiboan



sail bat sortzea eskaini zidan, bi helburrekin: bata, bertako langileei laguntza ematea, eta bestea, eskatzen zuten bezeroei euskarri emozionala ematea, dohainik (ehorztetxeak ordaintzen zuten zerbitzua zen). Bezero batzuk negarrez sartu eta algaraka ateratzen ziren nire gelatik. Ehorztetxeakoak harrিতuta: “Zer ematen diezu!”.

Oso kasu gogorrekin etortzen zen jendea. Beti aholkatzen nien zendua-ren argazkia ekartzeko; kontsultan jartzen genuen argazkia, eta hari begira hasten ginen pertsona hartaz oroitzen zutenaz hizketan. Une batean zendua-ren pasadizoak, xelebrekeriak kontartzeko eskatzen nien. Eta dolua sentitzen arizenak, pasadizoak kontatu ahal, barrez bukatzen zuen. Orduan esan behar zaio: “Ikusten nola barre egiteko ere baduzun gaitasuna? Ondo dago negar egitea, ondo dago sufritzen ari den pertsona bezala adieraztea zeure burua, baina baduzu barre egiteko gaitasuna ere”. Oso garrantzitsua da memento horretan barre egiteko gaitasuna ere baduela onartzea, ez ukatzea gaitasun hori. Barre haiek oso sanoak

ziren. Baina denekin ere ezin zenuen egin.

Psikologo eta terapeutak “eroentzat” direla uste du gure gizarteak. Al-diz, bada terapia berri bat, jendearen lan curriculumetan prestigio handia ematen duena: “coaching”-a. Zer da “coaching”-a?

“Coaching”-ek ingelesez “entrenatzailea” esan nahi du; kasu honetan, “bizitzaren entrenatzailea” litzateke. Bizitzari eskainitako “entrenamendu” bat da, zeure buruarekiko harremanari eta besteekiko harremanei eskainia. Hizkera arruntean esanda, pertsonarengan egon badagoen zerbaiti distira ateratzea da. Kontua ez da, gainerako terapiatan bezala, pertsona gaizki dagoela eta laguntza behar duela ondo sentitzeko. “Coaching”-ean parte hartzen duena ondo dago, baina bere gaitasunei eta ahalmenei etekin gehiago atera nahi die. Enpresa munduan ere asko erabiltzen da, martxan jarri nahi diren proiektu berriei begira, gaitasunei probetxu gehiago ateratzeko.

Michelangelo Buonarroti eskultoreari hala galdetu omen zioten behin: *“Nola arraio zara gai halako eskulturak egiteko?”*. Berehala marmolezko bloke handi baten aurrera eraman omen zuen eta hala erantzun omen zion: *“Eskultura barnean dago. Nik egiten dudak bakarra soberan duen harria kentzea da”*. Eta egia da, bizitzan zehar pertsonak azalez betetzen gara, tipulak bezala. Irudi bat ez bazaigu gustatzen, estaltzeko beste irudi bat sortzen dugu, eta gero beste bat... Maskarak jartzen ari gara etengabe. “Coaching”-aren bidez barnean dagoen benetako nia aurkitu nahi da, eta ahalik eta probetxurik handiena atera barnean dagoen horri.

“Coaching”-ean zein da profesionalaren egitekoa?

“Coaching”-aren profesionalak edo “entrenatzaileak” prozesu batean laguntzen dio pertsonari, bere barnean dituen potentzialtasunak aurki ditzan. Hasieratik pertsona horrek duen proiektuan zentratzen gara, helburu zehatz batzuk lor ditzan. Zer pentsatua ematen dioten galderak egin behar zaizkio, hormaren kontra jartzen duten galderak, hala bere burua gaindi dezan berak uste zuena baino askoz gehiago eta uste baino errendimendu handiagoa lortuz.

Konparazio batera, antzoki bateko butakan esertzea bezala litzateke gure lana, ondoan bere burua landu nahi duen pertsona dugula. Oholtzan bere bizitza ari dira antzetzten. Zuk komentarioak egiten dizkiozu, eszena bakoitza zer iruditzen zaion galdezka, zer gustatzen zaion eta zer ez, zer aldatuko lukeen. Albokoa jarrera alternatiboak bilatzen doa. Zu zara ikusarazten diona, pentsarazten diona, baina lana berak egin behar du.

Depresioa da gaurko bajen arrazoi nagusienetakoa. Zerk sortzen du depresioa?

Hainbat faktorek sortzen dute depresioa. Horietako bat helbururik eza da, bizitzarizentzurik ez aurkitzea. Ger-

taera zehatz batek ere eraman zaitzake depresiora: heriotza batek, lanetik bidaltzeak, bikotearengandik banatzeak. Horiek depresio “justifikatuak” dira, kausa agerikoa dutenak. Beste batzuetan, ordea, oso gordean dauden traumak dira depresioan mantentzen zaituztenak, eta jakina, trauma hori inkontzientetik kontzientera ekarri arte, depresio egoeretan egon zaitezke. Pertsona horiek ez dira etengabeko depresio sakon batean bizi, baina bai egoera gris batean beti, ilusio gutxirekin. Eta badira depresio endogenoak ere, herentziaz jasotzen direnak, genetikoki. Neuronen funtzionamenduan akats bat dago, eta melagtonina gehiegi edukitzeak depresioa sortzen du. Konpentsatzeko, egunero medikatu beharra daukate, eurentzat ez baitago balio duen terapiarik. Gainera, jendeak ez ditu ulertzen: *“Denetik duzu, ezeren faltarik ez, eta depresioa?”*; baina endogenoa da, gaixotasun bat, azkenean.

Gizakia konplexua da. Badira depresiboak diren animaliak ere. Batzuei nagusia hiltzean sartzen zaie depresioa. Animalia iletu batzuek, berriz, guraizeak sartuz gero ez dute etxetik irten nahizaten, ezkutatu egiten dira, lotsatu egiten dira eta depresioa sartzen zaie.

Bizitzaren aurrean zer jarrera har genitzake?

Lau jarrera daude bizitzaren aurrean. Positiboena litzateke sentitzea *“ni egokia naiz eta kanpoko mundua ere hala da”*. Beraz, elkarreragin oso positiboa dago ni eta besteen artean. Hain ona ez den beste jarrera bat bada: *“Ni oso egokia naiz, baina besteek zapaltzen naute, besteen biktima naiz”*. Zaila da pertsona hori aldatzea. Hirugarren jarrera justu alderantzizkoa da: *“Ni desastre hutsa naiz, eta beste denak oso argiak dira”*. Horri ere kostatzen zaio aldatzea, autoestimua baxua du. Baina denetan negatiboena zera esaten duena da: *“Nik ez dut deus balio, eta gizar-tea usteldua dago, ezer ez dago ondo”*. Jarrera horrek bere buruaz beste egitea ere eraman dezake inor. Kontuz, horrek ez du esan nahi bizitzaren aurrean jarrera hori dutenak ezin direnik aldatu!

Bizitzan
zehar pertsonak
azalez betetzen
gara, tipulak
bezala. Irudi bat ez
bazaigu gustatzen,
estaltzeko beste
irudi bat sortzen
dugu, eta gero
beste bat...
Maskarak jartzen
ari gara etengabe.
‘Coaching’aren
bidez barnean
dagoen benetako
nia aurkitu nahi da,
eta ahalik eta
probetxurik
handiena atera
barnean dagoen
horri





5 urteko haurrak mezu elektronikoak idazten

Sarritan entzun dugu haurrak irakasleak baino trebeagoak direla teknologia berrien erabilieran. Haurrentzat ordenagailua ez da tresna arraro eta berri bat; telebista bezain chikoa eta normala baizik. Txiki-txikitatik esertzen dira ordenagailuaren aurrean eta sagua eta pantailaren artean jarriarik hamaika froga egiten dituzte, batere beldurtu gabe.

Iazko ikasturtean, Berritze-guneek bultzatutako "proiektu telematikoa"ren bitartez, hainbat eskolako 5 urteko haurrak elkarren artean harremanetan jarri ziren posta elektronikoaren bitartez. Horieta-ko bi izan ziren Donostiako Jakintza ikastola eta Azkoitiko Xabier Munibe ikastola.

Proiektu berria zen hasi zirenean, hots, Gabonetako oporren ostean. Eta ekainean, ikasturtea bukatu ondoren, irakasleak oso gustura zeuden. Hasieran erronka bat zen, irakasleek beraiek ere ez baitzekizkiten proiektuak eskatzen zituen hainbat gauza. Esate baterako, testuak eta argazkiak eskaneatzen,

haurren ahotsak sartzen, hori guztia konprimitzen, argazki kamera digitalarekin argazkiak ateratzen eta gordetzen, dena bidaltzen... Ikasi egin behar izan dute. "Uretara salto egin eta igeri gitea" bezala izan dela diote, eta merezi duela. Horregatik, aurten 5 urteko haurrekin egongo diren lankideak animatu egiten dituzte.

Haurrak pantaila aurrean

Jakintza eta Xabier Munibe ikastetxeak inplikatu zituen esperientzian 5 urteko haurren sei gelek hartu zuten parte. Jakintzako gela bakoitza Xabier Munibeko batekin egon zen harremanetan. Gela bakoitzak peluxe bat erosi zuen eta izena jarri ondoren, beste eskolara bidali zuten. Horrela, Ketx untxia, Tigrix tigrea eta Txuri-beltz hartza Jakintzatik Azkoitiko eskolara joan zi-

ren, eta Delfi izurdea, Txomin hartza eta Koki txakurra Azkoititik Donostiarra. Handik aurrera, beste eskolakoek ematen zieten peluxearen berri: nola zegoen, zer egiten zuten, nolakoa zen ikastetxea, herriaren eta bertako txokoen berri, zer ekintza egiten zituzten... Eta informazio hori guztia posta elektronikoaren bitartez helarazten zioten elkarri. Donostiarrek astelehenetan bidaltzen zituzten mezuak, eta azkoitiarrek asteazkenetan erantzun.

Hala kontaktzen du Xabier Munibeko irakasle batek: "Astero bidaltzen genien e-mail bat. Lehenengo, papertxo batean idazten zuten mezua haurrek. Adibidez: 'Gaur Ketxek Santa Agedako abestiak abestu ditu'. Horrekin batera, argazki bat ateratzen genuen. Gero, talde txikitari edo binaka jarri eta ordenagailu gelara joaten ginen mezua idatzi eta bidaltzera".

Harremanaren oinarria posta elektronikoak izan zenez, ordenagailuarekin aritu ziren 5 urteko ikasleak, eta irakasleek diotenez, gauza asko egiteko gai dira adin horretan. "3 urterekin sagua erabiltzen eta bi klik jarraian egiten kostatzen zaie. Eskua ere oso txikia dutenez, zaila egiten



zaie iristea. Baina 5 urterako badakite ordenagailua pizten eta itzaltzen, teklata erabiltzen, idazten, ezabatzen... autonomoak dira". Batzuek etxean ikasten omen dute ordenagailua erabiltzen, baina ez posta elektronikoa. "Denetik dago, halere. Nire gelakoen artean gutxi zeukaten ordenagailua etxean. Liburutegira joaten dira" dio irakasle batek. "Etxean anai-arreba zaharragoak dituztenek gehiago dakite". Edonola ere, ausartak omen dira. "Edozer gauza eta programa erabiltzen ausartzen dira, lasai, beldurrik gabe. Guri informatika hainbeste kostatzen zaigu eta beraiek horrela ikustea..." diote irribarrez eta inbidia punttu batekin.

Konstruktibismoa ordenagailuan

Eskola bietan konstruktibismoaren ikuspegitik lantzen dute irakurketa-idazketa, eta teknologia berriekin ere bide bera jarraitu zuten. Irakurketa-idazketa lantzeko tresna osagarritzat hartu zuten. Izan ere, hori zen proiektu telematikoaren funtsa: irakurketa-idazketa teknologia berriak erabiliz lantzea, betiko arkatza eta paperaz gain ordenagailua erabiliz, alegia.

Eskuz bezalaxe idazten zuten teklaturekin, prozesu bera jarraituz. Lehenengo bokalak, silaba bakoitzeko hizki bat. Gero kontsonanteak, eta azkenik biak. Eta dena letra lariz. Aurreko urteetan modu konstruktibista hori baliatuz pilatu duten esperientzian oinarrituta, irakasle hauek oso motibagarria dela diote. "Hasieran, nahiz eta ezer ez jakin, idazten dute. Badakite hizkiak idazteko direla eta ezagutzen dituzte, mila lekutan ikusten baitituzte. Beraz, nahiz eta ezer ez jakin, badaukate idazteko aukera. 5 urtekoek, ordea, fase hori pasata daukate, eta soinuaren eta letraren artean zer erlazio dagoen ikasten ari ziren. Eta hori, bi modutara egin genuen: eskuz eta ordenagailuz".

Emaitza ikusita, hala gehitzen du irakasleetako batek. "Eskuz idazten hastean, letra politagoa edo itsusiagoa egiten dute. Ordenagailuan, aldiz, de-

nei berdin ateratzen zaie eta hori ere polita da".

Peluxeen protagonismoa

Peluxeak gelako lagun bat gehiago bilakatu ziren. "Pentsa, ikasleak kontatzen genituenean peluxea beti kontatzen genuen; bat gehiago zen".

Haur bat ospitalean egon zenean peluxea eraman zion irakasleak eta horrela, haurrak gelakideei idatzi zien peluxearen bitartez. Azken batean, Ketzek, Tigrixek, Txuri-beltzek, Delfik, Txominek eta Kokik gelan egiten zituzten ekintza guztietan hartu zuten parte. Eta etxera ere eraman zituzten. Haur bakoitzak gau batean eraman zuen bere gelako peluxea etxera, eta hori ere izugarria izan omen zen eurentzat, lotura afektibo sakona sorrarazi baitzuen. Hurrengo egunean etxean egingakoa kontatzen zuten gelan.

Etxera eramate horrek gurasoen inplikazioa areagotu egin zuen. "Afaltzeko zer eman behar zitzaion galdetzen zuten. Batzuek bainatu ere egin zuten...". Beste aldetik, mezuak bidaltzen ikasi zutenean ere gurasoek berehala erantzun zuten. "Eskolako helbide elektronikoa eman genien eta mezuak bidaltzen hasi ziren. Partaidetza inprobisatua izan zela konturatu gara; guk eskatu gabe, asko inplikatu ziren. Eta hori oso positiboa iruditu zaigu" diote pozik.

Ikasturte amaieran donostiarrak Azkoitira joan ziren egunpasa eta oso oroitzapen polita dutela diote. "Haurrek elkar ezagutu zuten, eta peluxeak trukatu genituen". Horrela, Ketz, Tigrix eta Txuri-beltz Donostiara itzuli ziren berriro, eta Delfi, Txomin eta Koki Azkoitira.

Mezuak ez dira eten

Behin mezuak bidaltzen ikasita, bide horri probetxua ateratzea ongi ikus-



ten dute irakasleek eta ideia berriak sortzen ari zaizkie. Jakintza ikastolako gela batean haur bakoitzak helbide elektronikoa bat ireki du etxean eta handik elkarri mezuak idazten hasi direla dio irakasleak. "Bost bat haur korreorik gabe gelditu ziren etxean ez zekitelako edo, eta neronek ireki nien ikastolan".

Azkoitiko irakasle batek dio euren bailaran gaztelaniarekin arazoak dituztela espresio aldetik, "eta agian mezuak gaztelaniaz bidaltzen zake. Baina, noski, hori gure kasuan, denek ez baitute arazo hori. Donostiakoekin ezingo genuke egin hori, Errezilgoekin edo Aiakoekin baizik".



hik hasik

zure parte-hartzea

ezinbestekoa du harpide zaitez!

40 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan
eta argitaratzen ditugun gainontzeko
materialetan

www.hikhasi.com

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA
SARIAK
(BEZ barne)

40 euro

hik hasi


Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54



kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan

“Bidelagun” etorkinekin

Duela hiru bat urte, Nafarroako Baztan, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi ingurunean, ia egun batetik bestera, herrialde ez garatuetako etorkinak etortzen hasi ziren. Egpera horren aurrean, eta beraz zeinahi arlotan sortzen ari den kezka nahiz jarreraz harturik, “Bidelagun” elkarteak gai hori ere lantzea erabaki zuten, eta hainbat ekimen jarri dituzte abian.

“Bidelagun” Nafarroako Gobernuak legalki onartutako eta irabazi asmorik gabeko landa eremuko elkarte da. 1999ko ekainaren 7an sortu zen Baztanen, Urdazubin, Zugarramurdi, Malerrekaren eta Bortzirietan borondatezko gizarte lana sustatzeko xedearekin.

Orainsu arte egoitza Elizondon baino ez du izan. Hala ere, beharrak bultzatuta, Donezteben ere beste egoitza bat zabaldu berri du.

Irabazi asmorik gabeko elkarte hau, hasiera batean, adineko pertsonen, erie eta ezinduei laguntzeko nahiz horrelako pertsonak zaintzeko helburuarekin sortu zen, bai beraien etxebizitzetan, bai bizitzen egon zitezkeen egoitzetan. Beharra daukan zeinahi pertsonari begira dago eta bizilekuetan nahiz



Itziar ARAMAIO

Euskal filologoa

egoitzetan kidesan programak daromatza aurrera, hala nola mandatu txikitetan laguntzea, kalera ateratzea erraztea, zaintzaileen ordezkapenak egitea, bakarrik dauden pertsonen laguntzea... Filosofia horrekin, halaber, ospitaleetan borondatezko programa bat ere badute martxan arrazoi bategatik edo besteagatik bakarrik dauden pertsonen laguntzeko; eta aldi berean, baita prestakuntza programak ere: bolutarioei begira dauden prestakuntza ikastaroak, herritarren sentsibilizazioa bultzatzekoak, elkartasuna, kultur aniztasuna eta giza eskubideen balioak lantzekoak... Ekintza kurioso gisa, euskaldun elebakarrekin itzultzaile lanak ere egiten dituztela aipa liteke -Iruñera ospitaleetara joan behar dutenean

edota gaztelaniazko dokumentuen aurrean. Beraz, beraien lan eremua guztiz zabaldu dela esan daiteke.

Duela hiru bat urte, Nafarroako Baztan, Bortziriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdi ingurune honetan, ia egun batetik bestera, herrialde ez garatuetako etorkinak etortzen hasi ziren. Hasieran etorkinen kopurua baxua zen, baina gaur egun, kontuan hartzeke zifren aurrean gaude. Hala, esaterako, Elizondoko herrian 3.000 bat biztanle badira, horietatik 200 inguru etorkinak dira, hau da, biztanleria osoaren % 6,6. Donezteben etorkinen kopurua altuagoa da. Herri horrek 1.200 biztanle ditu gutxi gorabehera, eta horietatik % 14 bat etorkinak dira.

Errealitate hori ikusirik, eta beraz zeinahi arlotan sortzen ari den kezka nahiz jarreraz oharturik, Bidelagun elkarteak gai hori ere lantzea erabaki zuten.

Hala, gai horri loturik, Malerreka, Bortziriak eta Baztango mankomunitateetako euskara teknikariek hainbat hizkuntzatan (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez) etorkinei begirako liburuxka informatibo bat kaleratzea erabaki zuten eta Bidelagunek ere bertan parte hartu zuen. Liburuxka horretan askotariko informazioa biltzen da: ingurune horretako lanbideak, lanarekin zerikusia duten eta beraie in-



teresgarri gerta dakizkiekeen datuak, euskararen presentzia nahiz garrantzia beraien integrazioari begira, eskolek eskaintzen dituzten ikasketa ereduak, telefono interesgarriak, eskualdeko nahiz herriko (Doneztebe, Elizondo eta Bera) mapa eta datu geo-demografikoak, oinarizko hiztegitxo bat hamar hizkuntzatan... Liburuxkak hiru herrietako gizarte zerbitzuetan, zonaldeko eskoletan eta Bidelaguneko egoitzetan daude zabaldua, eta hala, etorkina herrira heltzearekin batera, informazioa luzatzen zaio.

Etorkinekin bilerak egiten dira

Hala ere, argi zegoen hori ez zela nahikoa etorkinen integrazioari begira. Orduan, beraiekin biltzea, elkar ezagutzea eta haien kezkak entzutea izan zen emandako lehen pausoa. Lehen bilera 2003ko udazkenean egin zen, eta orduetik hona, beste batzuk ere burutu dira. Bakoitzean gai bat lantzen da etorkinekin; adibidez, lana, etxebizitza, pape-
rak, kultura askotariko biltoki bat sortzeko beharra, hezkuntza... Bilera horietan etorkinek hainbat galdera egiten dizkiete, eta Bidelaguneko kideek eta haiek gonbidaturiko adituek, ahal duten heinean, bileran bertan erantzuten dizkiete. Arduradunen hitzetan, oso giro jatorra sortu da eta etorkinen parte-hartzea handia da. Etorkin helduez

gain, noizbehinka, nerabeak ere hurbiltzen dira.

Horietako bilera batean hezkuntza arloa landu zen. Gaur egun, Nafarroako ingurune honetako haurren % 90 D ereduan matrikulatuta dago. Hasiera batean, haur etorkinen gehiengoa A ereduan matrikulatzen zen. Haur etorkin horietako gehienak Hego Amerikakoak dira, eta bereziki, Ekuadorkoak. Urtetik urtera haur etorkinen matrikulazioa nabarmen gorantz doala kontuan hartuta, irizpide batzuen beharra ezinbestekoa da.

Guraso etorkinek, errealitate horretaz jabeturik, bilera hartan beraien seme-alabak D ereduan matrikulatuak izatea nahi zutela aldarrikatu zuten, haurrak herrian integratzeko ezinbestekotzat jotzen baitzuten euskara jakitea. Bidelagun elkarteak guraso horien kezkarekin bat datorrenez, beldurrak alde batera utzita, gai horri heldu dio eta bide hori jorrazteko konpromisoa bereganatu du.

Hezkuntza arloari begira, bilera hartan beste hainbat hutsune eta adierazpen ere azaleratu ziren, eta horietako batzuk haur etorkinen ahotik. Bartzar hartan zeuden Bigarren Hezkuntzako etorkin gazte batzuek, Bidelagun elkarteko harridurarako, ikaslagunen aldetik ikastetxean entzun nahiz jasan behar izaten dituzten jarrera eta txu-

txu-mutxu arrazistak adierazi zituzten; hala nola, *“alde hemendik, lana kentzera etorri zarete eta!”*, *“zure ama emagaldua da, emakume beltz gehienak bezala!”* eta mota honetako beste hainbat iruzkin. Baina ez hori soilik. Jolas orduetan ere, haur etorkinak haur etorkinekin ibiltzen zirela eta autoktonoak autoktonoekin aipatu zuten. Bileran bildurikoak gai honekin kezkatuak agertu ziren, eta ez eskola eremuari dagokionez soilik. Klean ere mota horretako iruzkin eta jarrera arrazistak bizitzen direla jakinik, biztanleria osoari eta gehien bat bertako jendeari begirako sentsibilizazio kanpaina bat bultzatzea erabaki zen.

Sentsibilizazio kanpaina, batetik, zonaldeko ikastetxe guztiei zabaldua dago, bai herrietako eskolei, bai eskola kontzentrazioei; eta bestetik, kaleko eta herriko pertsona orori.

Hala bada, Baztango Herrietako Eskolak, Elizondoko San Frantzisko Xabier ikastetxe publikoa eta Baztan ikastola lanean jarri ziren, eta hilabete batean zentroetako kultura guztiak curriculumeko ikasgai denetan lantzea erabaki zuten. Horrela, musika ikasgaietan, esaterako, hainbat herrialdeetako kantutak, musika tresnak, taldeak eta abar ezagutu eta aztertu zituzten; geografian ikastetxeko herrialde guztiak mapan kokatzen eta horien ezaugarri geografi-

Guraso etorkinek seme-alabak D ereduan matrikulatu nahi zituzten, herrian integratzeko ezinbestekotzat jotzen baitzuten euskara jakitea

ko nagusiak eta hiri nagusiak non dau- den ikasi zuten; gaztelaniako eskoletan Hego Amerikako gaztelania eta Estatu Espainiarrekoa aurrez aurre jarri zituz- ten; eta horrela, beste ikasgai guztietan ere. Guztiz emaitza positiboak lortu zi- ren, eta arrazoi hori dela bide, hainbat herritan kulturarteko hilabete horretan burututako materialen erakusketa bat egitea erabaki zen.

"Ikusi-makusi" / "Vevo-veo" proiektua proposatu dute

Kulturartekotasuna helburutzat hartuta eta elkarbizitza positibo bat lor- tzeko bide honetan, beste pauso bat ere eman behar zela jabeturik zeuden Bi- delaguneko kideak. Horrela, sentsibi- lizazio kanpaina bateko abiapuntu mo- duan, Mikel Gereka koordinatzaile lan- etan jarririk (Mikel, Malerrekako hain- bat ikastetxetan ingelesko irakaslea da), Baztan, Malerreaka eta Bortziririak in- guru honetan, "Asamblea de Coopera- ción por la Paz" (ACPP) estatu mailako elkarteak aurkezten duen "Ikusi Maku- si" / "Vevo-veo" proiektua bertako ikas- tetxe guztietara luzatzea proposatu zu- ten Bidelaguneko kideak.

Proiektu europar hau 10-14 urte bi- tarteko haurrei zuzenduta dago. 1993. urtean Lunteren (Holanda) egin zen Nazioarteko "I spy with my little eye" lantegiaren erakusketan oinarritzen da eta, "Baustelle Europa" proiektuarekin lotura dauka (proiektu hori Alemaniaren, Belgikaren eta Holandaren artean aurkeztu zen). "Asamblea de Coopera- ción por la Paz" elkarteak proiektu hori bere gain hartu zuen, gaztelaniara itzuli zuen eta, estatu espainiarreko hainbat herritan eta ikastetxetan zabaltzen ari da, erakusketa bitartekotzat hartuta.

"Ikusi-makusi" ez da ohiko erakus- keta bat. Zirkuitu eran eta txokoka da- go antolatua. Bertan gaztetxoak hain- bat arazo edota egoeraren aurrean jar- tzen dira eta konpontzen saiatu behar dute. Baliabide didaktiko askotarikoak erabiltzen dituzte. Haurrek erakusketa ikusi aurretik, material didaktiko horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko, hamar orduko sentsibilizazio ikastaro-

ak eskaintzen zaizkie irakasleei. Ondo- ren, gelan hainbat gai lantzen dira el- karbizitza baketsua bideratzeko eta us- te hedatuak nahiz orokortasun eta este- reotipoak hausteko. Gelan aniztasuna- ri dagokion lehen sentsibilizazioa egin eta gero, erakusketari egiten zaio leku. Bukatzeko, haur guztien artean proiektu honetatik atera dituzten ondorioak idazten dira, eta ahoz azaltzen dira gelan. Proiektuaren arduradunen hitze- tan, orain arte behintzat, Estatu Espai- niar osoan oso emaitza positiboak lortu dira.

Arestian aipatu dugunez, Bidela- gun elkarteak proposamen hau ikastetxe guztiei luzatu diete. Memen- toz, Lehen Hezkuntzako zentro batzuk parte hartzeko prest agertu dira, eta Bi- garren Hezkuntzako zonaldeko ikaste- txe gehienak ere bai.

Bidelagunekoek, beraz, jada bota dute hasi berria den ikasturterako erronka bat, baina orain ikusi egin behar ea aurrera atera dezaketen edo ez. "Ikusi egin behar" diogu, izan ere, ma- terial hau gaztelaniaz dago, eta euska- ratzeak 36.000 euroko kostua du, be- raien poltsikoetarako gehiegixko, kan- poko diru laguntzekin bizi direla ain- tzat harturik (ez da ahaztu behar elkarte hau GKE motako erakunde bat dela). Beraien esku dagoen guztia egingo omen dute proiektua Baztanen, Male- rrekan eta Bortzirietan martxan jartze- ko, guztiz beharrezkotzat jotzen baitu- te mota honetako proiektuak ikastetxe- etara ekartzea elkarbizitza positiboak lortu nahi baldin bada. Baina kanpoko diru iturririk gabe, beltz ikusten dute geroa. Hala bada, kontuan izanda eus- kaldun gazte ororentzat positiboak izan- go den proiektu baten aurrean gaudela eta Nafarroako Gobernuak euskarare- kiko duen jarrera hala nolakoa dela, el- karte honetako kideek, aukera hau aprobetxatuz, EAEko erakundeen ate- ak jo nahiko lituzkete, eta horien artean bereziki Eusko Jaurlaritzakoak. Euska- ratzeko behar duten dirua edota dirua- ren zati bat baino ez dute eskatzen. Ho- rrela, material hori hor egongo litzateke euskaraz, eta denontzat izango litzate-

Ikastetxeek bertako ikasle guztien kultu- rak curriculu- meko ikasgai denetan lantze- ra erabaki zuten

ke aberasgarri, mota guztietako mugak hautsiz eta euskal hizkuntzari esker de- nok elkartuz. •

* OHARRA: norbaitek BIDELAGUN el- kartekoekin harremanetan jarri nahi badu, edo diru laguntza eman, dei edo idatz beza ondorengo helbide honetara:

BIDELAGUN BOLUNTARIOTZA
Santiago karrika, 58 A beheiti
31700 Elizondo
Nafarroa
Telf. 948.58.13.27
bidelagun@hotmail.com
Kontu korrontea: Nafarroako Kutxa
2054/0213/28/30100/11830



Hitzaldiak

"Kultura eta hizkuntza aniztasuna eskolan" gaiaren inguruko kezkei erantzunak emateko, interesgarriak gerta daitezkeen
HITZALDIAK

Tel.: 94 475 78 80
evntf@avntf-evntf.com
www.avntf-evntf.com/homeescuela.asp

Tel.: 93 400 69 00
www.gencat.net/ense

↘ Emigrazioa eta familia

Non: GASTEIZen
Noiz: 2004ko azaroak 26-27
Informazioa:
Escuela vasco navarra de terapia familiar
Tel.: 94 475 78 80
evntf@avntf-evntf.com
www.avntf-evntf.com/homeescuela.asp

↘ Bat-bateko ipuinaren erabiler a haur txikiekin familia terapietan

* Mintegi hau ez dago immigrazioarekin lotuta, baina baliagarria izan liteke hainbat arlotatik
Non: IRUÑEAen
Noiz: 2004ko aurriak 22-23
Informazioa:
Escuela vasco navarra de terapia familiar
Tel.: 94 475 78 80
evntf@avntf-evntf.com
www.avntf-evntf.com/homeescuela.asp

↘ IV Congreso sobre la Inmigración en España

Non: GIRONAn
Noiz: 2004ko azaroak 10-13
Informazioa:
www.congresos.hostingtravel.com

↘ Bitartekaritza interkulturala: bere ezarpena familian

Non: BILBOn
Noiz: 2004ko abenduak 10-11
Informazioa:
Escuela vasco navarra de terapia familiar

↘ III Jornadas sobre Programas d'immersió

Non: BARTZELONAn
Noiz: 2004ko urriak 15-16
Informazioa:

↘ La inmigración extranjera como desafío y esperanza

Non: VALENTZIAN
Noiz: 2004ko azaroak 15-19
Informazioa:
Menéndez Pelayo Unibertsitatean

↘ I Congreso Internacional sobre Educación e Inmigración

Non: VALENTZIAN
Noiz: 2004ko azaroak 25-27
Informazioa:
www.cei-cv.org/index.htm

Irakurleen txokoa

Txoko hau zeurea duzu, irakurle, eta bi aukera luzatzen dizkizugu: galderak egitea eta erantzunak ematea.

Lehenengoak kultura eta hizkuntza aniztasunaren inguruko kezkek, galderak eta zalantzak bideratzeko aukera ematen ditu. Horretarako, bi helbide hauetakoren batera idatzi besterik ez duzu egin behar:

itziaramayo@msn.com edo **aldizkaria@hikhasi.com**

Zure izena edo ikastetxearen izenarekin batera, helbide elektronikoa jartzea eskatzen dizugu, erantzuna emateko zurekin zuzenean harremanetan jar dadin nahi duen oro.

Bigarren aukera erantzuna ematearena da. Hemen agertzen diren galderei edonork eman diezaieke erantzuna, proposamena, aholkua, laguntza, iradokizuna... bi modutara: galdera egiten duenarekin zuzenean harremanetan jarriz edo aldizkari- ra idatziz (**aldizkaria@hikhasi.com**).

Harremanetarako bide berri honekin, dauzkagun kezkek denon artean eta elkarri gure esperientziak kontatuz bidera ditzakegu. Anima zaituzte!

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxo
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak urria



Arrakastaz bukatu ziren Udako Topaketak uztailean

Beste urte batez jende andana bilduzen uztailearen lehen bi egunetan **V. hik hasi udako topaketa pedagogikoe-tan.**

Aurreko urteetan ez bezala, aurten bi egunetan ospatu dira, goiz eta arratsaldez, eta jendearen erantzuna oso ona izan da.

Denetarikoa ikastaroak egon dira aukeran, interesak eta gogoia ere hala baitira. Lehenengo aldiz eskaini diren *Hiperaktibitatea* eta *Estresa irakaskuntzan* ikastaroek arrakasta handia izan dute. Era berean, jendea oso gustura gelditu da beste hainbat ikastarotatik irten ondoren, besteak beste *Haurren-*

tzako masajea, *Idatzizko hizkuntza-ren trebaketa prebentiboa*, *Ipuinak kontatzeko trebaketa*, *Musika ordena-gailuz eta Perkusio afrikarra*.

Betikoildoari jarraituz, oinarri teori-koak ahaztu gabe, alderdi praktikoak presentzia handia izan du ikastaro guz-tietan, eta parte-hartzaileek asko esti-matu dute hori, gero eguneroko lanean baliagarri dela ikusteko aukera ematen baitu.

Aipatzekoa da ikastaroetan parte hartu dutenek izan dute motibazioa, eta horrek izugarriko eragina du gela-ko giroan. Jendea oso gustura eta gogo-tsu aritu da. Bejondeizuela!



Eskulanak egiteko prest!

Eskulanak geure kabuz egiteko fitxak izenarekin, eskulanen bilduma bat argitaratu du Lasarte-Oriako Ttakun Kultur Elkartek.

47 eskulan proposatzen dira argitalpenean, eta fitxetan aurkezten dira, erabilerraza izan dadin. Tapa gogorreko karpeta batean biltzen dira fitxa guztiak. Eskulanak egiteko prozesua argazki bidez eta azalpen labur eta argiekin egiten da. Fitxak izatean, askotan erabiltzeko, fotokopiatzeko... oso praktikoak dira. Gainera, orri plastifikatuak dira, eskulanak egiterakoan zikindu edo bustiz gero ez hondatzeko.

Aurkezten diren lanak hautatzeko orduan, egileek kontuan izan dute politak izatea, gustura geratzeko modukoak; egiten errazak, tresna zailik erabili gabe; eta laburrak, saio batean edo bitan egiteko modukoak. Bestalde, materialari dagokionez, askotan birziklatua erabiltzeko proposamena luzatzen dute, eta bestela, aise lor daitekeena.

Gida hau irakasleentzat, gazteenentzat, gurasoentzat, begiraleentzat eta haurrekin aritu nahi duen edonoren-

tzat da, baita haurrentzat berentzat ere. Ez dute adina bereizi nahi izan, eskulan bakoitzak moldaketak onartzen dituelako, egilearen arabera.

Askotan aipatu izan da eskulanen balioa, hala nola eskuak trebatzeko, sormena lantzeko, pazientzia garatzeko... Hori guztia eta askoz gehiago! Dena dela, egileen iritziz, badu beste alderdi bat: gustura aritzekoa, tarte lasai eta atsegin bat igarotzekoa..., ezertarako ez, baina askotarako! Eta gainera, euskaraz. Hori da material honen beste ezaugarrietako bat: fitxak euskaraz daude. Ttakun Kultur Elkarteko kidei eskulanen arloan euskaraz ezer gutxi dagoela iruditzen zitzaien, eta horregatik egin dute ekarpen hau. Elkartek, betidanik, hainbat erabileratako eremuak jorratzea izan du helburu, eta aisialdiaren arloan egiten ari diren lanaren barruan, oraingoan, eskulangintzari heldu diote.

Argitalpena prestatu duten begiraleek esperientzia handia dute atal horretan, eta zenbait irakasle eta gurasoren laguntza ere jaso dute edukiak lan-



tzerakoan.

Eskulanak geure kabuz egiteko fitxak argitalpena Euskal Herriko zenbait herri eta hirietako liburudenda batzuetan aurkitu ahal izango duzue, baita zuzenean Ttakun Kultur Elkartean 943 371 448 telefonora deituz eta asia@ttakun.com posta helbidera mezu bat bidaliz.



Txirulaz I eta II, Gitarraz, Eskusoinuaz eta Ostadarraren hotsaz liburuen ondoren...

Pianoaz




12€

hik hasi

E · I · X · R · Z · I

...musikaz gozatzeko beste aukera bat

Argitalpenak



Euskal Herriko Historia I eta II
GAIAK

Historiaurretik Gerra Zibila arteko Euskal Herria biltzen dute bi liburuok, Ipar eta Hegoa kontuan izanda. Ez da gertaeren deskribapen soila ere; kapitulu bakoitzean, eztabaidarako gaiak azaltzen dira, protagonista izan diren gizon eta emakumeen berri laburra ematen da, gertakarien lekuen inguruko istorioak lantzen dira eta datarik inportanteenak zerrendatzen dira. •



Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ondare arkitektonikoa
IKASTOLEN ELKARTEA

CD-ROM honetan Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Industriaren eta Azpiegituren Ondare Arkitektonikoa lantzen da zabal eta era didaktikoan. Horretarako hiru atal dira. Datu basea, trenbide, errota, burdinola eta abarren kontsulta iturria dena. Mapa, bisiten ibilbidea antolatzen errazten duena. Eta abentura jokoak, gidoi batean oinarrituz elementu arkitektonikoen ezaugarriak modu ludikoan ikasteko. •



Euskal Herriko Landareak eta inguruak sailkatzeko gako irudidunak
EUSKO JAURLARITZA

Obra honen asmoa da gure lurraldeko edozein landare ahalik eta errazen identifikatzeko tresnak ematea. Gainera, baditu datu interesgarriak landareen ezaugarriei eta banaketari buruz. Landare motak zehazteko urrats guztiak irudiz hornituta daude. Lan sakon honen egile ditugu C. Aseginolaza, I. Aizpuru, P. M. Uribe-Etxebarria, P. Urrutia, E. Lekuona eta I. Zorrakin. •



Sekulako oparia
Carl Norac
IBAIZABAL

4 urtetik aurrerako haurrentzako liburu honek album itxura du. Marrazkiak handiak eta oso adierazgarriak dira. Luis haurrak bere urtebetetzerako hartz handi-handi bat eskatu du, eta bere aitak, basora joanda, benetako hartz bat ekarri dio. Etxean izugarriko deskalabruak sortzen direla ikusita, gurasoek etxetik bidaliko dute, eta Luis basora abiatuko da hartzaren bila. •



Astigar basoa
Endika Zabalza
TXALAPARTA

Bederatzi urtetik aurrerakoei zuzendutako liburua da. Basoan etxola txiki bat dute Amaiak eta Enekok. Egun batean, ezustean, bola batekin egingo dute topo, hiruki gorri bat duen bola urdin ederra. Gertakizun honek Amaia eta Enekoren bizitza eta ingurukoena hankaz gora jarriko du. Elkar ulertzeaz eta errespetuaz mintzo den liburua da. •



Ez naiz ilehoria, eta zer?
Kirmen Uribe
ELKARLANEAN

Eta zer? saileko hamabigarren liburua aniztasunaren aberastasunaren aurrean jartzen gaitu beste behin ere. Aminak ilehoria izan nahi du, filmeetako aktoreen moduan. Izebarekin astero joaten zen zinemara Europara etorri aurretik. Gero, zinematik atera eta Europara begira jartzen ziren biak itsasertzetik. Orain itsasoaren beste aldetik idazten dizkio izebari gutunak. •

III. Zernola Olinpiada hastera doa

Elhuyar Fundazioak **III. Zernola Olinpiada** jarri du martxan. Urrian hasi eta maiatza bitartean luzatuko da eta Euskal Herri osoko DBHko 1. eta 2. mailako ikasgelek hartu ahal izango dute parte. Horretarako epea irekita dago jada www.zernola.net atarian. Lehiaketa honen helburua gaztetxoek zientzia eta teknologiaz gozatzea eta jolas lastuz ikastea da. Urtetik urtera gero eta jende gehiagok hartzen du parte: lehenengo aldian 54 ikasgela aritu ziren lehian, eta iaz 92. Aurten kopuru hori igotzea espero dute antolatzaileek.

Parte-hartzaileek www.zernola.net atarian argitaratuko den zientziaren inguruko proba bat gainditu beharko dute hilero, urria eta maiatza bitartean. Gainera, aurten berrikuntza ugari topa-

tzeko aukera izango da atari horretan: itxura berria, ikasleek beren lanak zintzilikatzeko lekua, foroak, joko berriak eta abar. Probak gelakide guztien artean egiteko dira. Behin egin ondoren, erantzuna posta elektronikoki bidez bidali beharko da zernola@elhuyar.com helbidera.

Hilabete bakoitzeko irabazleek sariak jasoko dituzte: museoetarako sarrerak, DVDak, kamisetak, koadernoak eta abar. Eta bukaeran, sailkapen nagusiko gela irabazleak Espejoko aterpetxean bi eguneko egonaldia irabaziko du, Aventura Sobron-en hainbat ekintzak barne.

Informazio gehiagorako:
www.zernola.net

ELHUYAR
fundazioa



“Nanoskopia” ideia-lehiaketa gazteentzat

III. Zientzia eta Teknologiaren astearren barruan, Sarenet erakundeak, euskal zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sareak, eta Elhuyar Fundazioak, **“Nanoskopia ideia-lehiaketa”** jarri dute abian **Lanbide Heziketako eta Batxilergoko ikasleentzat**.

Gaur egun nanoteknologiaren garairan sartzen ari gara. Gero eta makina txikiagoak egiten dira. Lehen etxean ere sartzen ez zen teknologia, eskuan har dezakegu gaur egun. Laster molekulen neurriko makinak ikusiko ditugu medikuntzan, elektronikan, kimikan eta abar.

Bilakaera hori ez da geldituko, eta egokitu beharra etorriko da. Eta lehiaketa honek horretara hurbiltzea du xede.

Parte-hartzaileek, gehienez lau ki-

deko taldeetan banatuta, nanoteknologiaren ikertzen ari diren zientzialariak direla irudikatu behar dute eta gizarteari onura nabarmena egingo dion asmatuntza bat egin beharko dute. Asmatuntza horren hormairudia aurkeztu beharko dute lehiaketara. Proposatzen den lan horrek ez du zertan egiazkoa izan behar, irudimena baita gehien sarituko dena.

Lehen saria lortzen dutenek PDA bana jasoko dute. Horrez gain, probintzia bakoitzeko lanik onenek ikasgela osoarentzako ibilaldi bat jasoko dute sari gisa. Hiru ibilaldi egongo dira aukeran, denak ere zientzia eta teknologiarekin zerikusia dutenak: Miramongo Zientzia Museora eta Gipuzkoako ikerketa zentro batera bisita; Bilboko Itsas Museora eta Bizkaiko ikerketa zentro

batera; edo Gasteizko katedralera eta Arabako ikerketa zentro batera. Horretaz aparte, jasotzen diren posterren artean onenak aukeratu eta III. Zientzia eta Teknologiaren Asteko jardunaldiaren izango dira ikusgai, azaroaren 8 eta 9an Gasteizko Europa Jauregian.

Lanak aurkezteko **epea urriaren 25ean amaitzen da** eta helbide honetara bidali behar dira:

Elhuyar Fundazioa
Erref. Nanoskopia
Asteasuain, 14
20170 Usurbil, Gipuzkoa

Informazio gehiagorako:
Elhuyar Fundazioa
Tel.: 943 363 040
nanoskopia@elhuyar.com

Gidoilariantzako eta marrazkilarientzako lehiaketa

Sauré argitaletxeak bi lehiaketa antolatu ditu: bata gidoiari buruzkoa, "Inka txikia"; eta bestea umore grafikoa-ren eta tira komikoaren atalekoa.

Gidoi lehiaketa

"Inka txikia" lehiaketan parte-hartzaileek **gidoi** bat aurkeztu beharko dute eta gaia zehaztuta dago: gizarte, ekonomia eta kulturazko bazterketa jorratu beharko du. Protagonista, Manuel, 12 urteko Inka txiki bat izango da, Lima hiriko errabaletan jaiotakoa. Orain Sydney-ko auzo behartsu batean bizi da, non biztanle gehienak Australiako aborigenak diren. Gertakizun guztiak Australian kokatu behar dira, XXI. mendean. Idazleak ipuin moduko bat idatzi behar du, komikirako gidoi formatuan. Bertan, gizakiak, zailtasunak zailtasun eta arazoak arazo, elkarrekin bizi dira eta gauza dira, lan eginez eta umore onez, zorigaitzak gainditzeko. Lan honen helburua pobreziari giza ikuspegi-tik begiratzen laguntzea da.


Formatuari dagokionez, 11 orrialdetako historieta bat aurkeztu behar da, eta gidoiaren erabiltzen diren tokien, eraikinen arkitektura eta besteren foto-kopiak ere txerta daitezke. Lanak euskaraz zein gaztelania egin daiteke. Lehiakide bakoitzak lan bat edo bi aurkez ditzake. Aurkezteko epea urriaren 23 artekoa da.

Lehenengo saria 1.000 eurokoa da; bigarrena 450 eurokoa, hirugarrena 300 eurokoa eta laugarrena 250 eurokoa. Saritutako gidoietatik abiatuta, argitaletxeak komiki-marrazkilari bat aukeratu du 44 orrialdeko komiki oso bat egiteko.

Komiki lehiaketa

Bigarren lehiaketari "**Ingurumenari buruzko alegia**" izena eman diote, eta komiki tira da. Kasu honetan ere

gaia zehaztuta dago: Andres izeneko olagarro batek hausnarketa eta gogoeta egiten du gizakien jarduerak eta natura-ko fenomenoek (zientzia, garapen ja-sangarria, garraioa, energia, arrantza in-tentsiboa eta abar) itsas ingurumenaren gain duten eraginaz. Behar-beharrez-



koa izanez gero, marrazkilariak hizketan dakiten alegiazko beste animalia batzuk ere baliatu ahal izango ditu. Istorie-tako edukiak bat etorriko dira tonu bai-korreko estilo-ildo batekin eta betiere u-more ona erakutsi beharko du.

Formatuari dagokionez, orrialde bakoitzean hiru marrazki zein hiru tira komiko kolorezko egongo dira, eta epaimahaiarentzat marrazki batek zein tira komiko batek balio bera izango du-te. Dokumentua CD formatuan entregatu behar da eta paperezko bi kopia DIN A4 formatuan. Aurkezteko epea urriaren 30ean bukatzen da.

Lehen saria 800 eurokoa izango da, eta hurrengo lauak 600, 500, 400 eta 300 euro, hurrenez hurren.

Informazio gehiagorako:

Sauré argitaletxea
Goiango industrialdea
San Blas, 11
01170 Legutio- Araba

Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia Opera Prima" narra-tiba sarien deialdia

Erein argitaletxeak **Erein-Euskadiko Kutxa eta "Donostia, Opera Prima" narra-tiba sarien 2. deialdia** egin du. Lehiaketaren helburua euskaraz idatzitako literatura bultzatzea da, eta orobat, euskal egileak sustatzea.

Euskaraz idatzitako lanak aurkez daitezke; orijinalak eta argitaratu ga-beak izan behar dute, eta beste ezein literatur lehiaketetan aurkeztu gabe-ak. Lanak Din-A4 formatuko orrietan aurkeztu beharko dira (2.000 karaktere orriko) eta gutxienez 100 orrialdeko luzera izango duten lau kopia bidali behar dira.

Erein-Euskadiko Kutxa narra-tiba saria aurkeztutako eleberri onena-rentzat izango da eta saria 12.000 euro-takoa izango da. "**Donostia, Opera Prima**" saria, aldiz, 2005 urte barruan 35 urte edo gutxiago izan edo narra-tiba libururik argitara eman gabea dela aurrez adierazi duen idazleak idatzita-ko eleberri edo narra-tiba lan bikaine-narentzat izango da. Saria 4.500 euro-takoa izango da.

Lanak aurkezteko **epea 2004ko abenduaren 20an** amaituko da. Sari banaketa 2005eko martxoaren biga-rren hamabostaldian egingo da, eta urte bereko apirilaren 23rako argita-ratuko dira saritutako eleberriak.

Lanak helbide honetara bidali be-har dira:

Erein (Erein-Euskadiko Kutxa na-rra-tiba saria)
Tolosa etorbidea 107
20018 Donostia

Muga guztien gainera ...euskaraz!

Baionako Bernat Etxepare lizeoa Euskararen gotorlekua

Lizeo gaztea da Baionakoa, eta euskaraz ikasteko aukera ematen duen bakarra Iparraldean. Horregatik biltzen dira bertan denak, zuberotarrak, baxenabartarrak eta lapurtarrak, guztira 179 ikasle eta 20 irakasle. Enkei-enkei ikasle kopurua handituz doa, baina oraindik txiki izatearen abantaila biziki estimatzen dute, elkar ondo ezagutzearena eta hurbil sentitzearena, alegia.

Seaskako Bernat Etxepare lehen lizeoa Kanbon sortu zen 1987an. Kanbono kolegioa eta biak leku berean egon ziren 1996 arte, hots, tokia txiki gelditu zen arte. Geroztik Baionan dago Bernat Etxepare lizeoa. Ez da Baionan eta Iparraldean dagoen lizeo bakarra, noski, baina bai ikasketak euskaraz egiteko aukera eskaitzen duen bakarra. Eta horixe da lizeoaren bereizgarri aipagarriena. Aurretik euskaraz ikasten aritu diren gazteei modu berean jarraitzeko aukera luzatzen die.

Ikasgai guztiak euskaraz egiten dituzte, hizkuntzakoak izan ezik. Euskara, Frantsesa, eta beste hizkuntza bat, ingelesa edo gaztelania, beharrez-

ko dituzte. Horrez gain, laugarren hizkuntza ere hauta dezakete.

Gela barruan batez ere euskara batua erabiltzen dute, baina irakasleak euren euskalkian ere mintzatzen dira, ikasleak bezalatsu. Gillermo Etxebarria zuzendariak barre egiten du. *“Komunikazio hizkuntza pixka bat nahasia da. Euskara batutik hurbil egon arren, forma baxenabartar batzuk edo lapurtarako aditz formak sartzen ditugu”*. Ikasle gehienek euskara batua edo baxenabarrera erabiltzen dute, baina bi zuberotar elkartzen badira, zubereraz mintzatzen dira, noski.

Edonola ere, badira frantsesez aise-ago hitz egiten duten gazteak, eta nahiz-



eta euskaraz mintzatzeko, ulertzeko eta idazteko gai izan, frantseserako joera dute. *“Kanpoko indarra handia da eta batzuek etxean ere frantsesez egiten dute. Bakar batzuentzat eskola hizkuntza da euskara”* dio zuzendariak.

Hala ere, euskararen erabilera areagotzeko hainbat ekimen antolatzen dituzte ikasleek beraien: aldizkaria, irratia...

Ikasleak barnetegian gelditzen dira

Kostaldeko zenbait ikasle, eta barnekaldeko urrunekoak, barnetegian gelditzen dira. Urtetik urtera ikasle gehiago biltzen da bertan. Aurten, esate baterako, 35-40 ikasle inguru daude, iazko bikoitza. Bertan, Seaskaren filosofia jarraitzen dute eta eguneroko bizimodua euskaraz egiten dute hango hezitzaileekin batera. *“Lehen kolegioetan ere barnetegiak zeuden, baina gaur egun ez. Hiru kolegio zabaldua egonik, ez direlako hain urrun gelditzen etxetik. Horregatik, ikasle batzuk kolegioko barnetegian egondakoak dira, ikasle berrienak ez. Horiengatik lehen-dabiziko esperientzia da”,* azaltzen digu Gillermo Etxebarriak.

Ikasketak eta azterketak

Kolegioan 6., 5., 4., eta 3. mailak ikasi ondoren, lizeoan 2., 1. eta Terminal mailak egiten dira. 2. maila orokorra da, eta hurrengo bietan ibilbide ezberdinak hautatu behar dira. Bernat Etxeparen, batxillergo orokorrean diren hiru ibilbide edo sailak daude: literarioa, zientifikoa eta ekonomiko-soziala. Beste zenbait lizeotan teknologikoa eta profesionala ere eskaintzen dira, *“baina horietako bakoitzean pila bat sail daude eta gukezin ditugu denak eskaini, talde txikiak sortuko lirakeelako”,* argitzen digu zuzendariak.

Hiru urte horiek pasa ondoren, 18 urterekin, Baxo azterketa egiten dute. Azterketa estatala da eta ikastetxetik at egiten da. *“Euskara ikasgaia euskaraz egiten dute, eta Historia-Geografia euskaraz idazten ahal dute, nahiz eta*



frantsesez aurkeztuak zaizkien dokumentuak. Beste guztia frantsesez”. Izan ere, frantsez legedian atzerritar hizkuntzen parekotzat hartzen da euskara, Erresuman diren beste hizkuntza guttiti guztiak bezala funtsean, baina atzerritar hizkuntzetan ere mailak daude, eta euskara ez da lehen hizkuntza baten parekotzat hartzen, 2. edo 3. moduko bat baizik.

Bada beste bereizgarri bat ere Gi-

Europa egin nahi dugun honetan, oraindik oso zaila da ikasketen bateratzea: hemengo ikasketa guztiak baliozkotu, tramitazioak, ordainketak... eta selektibitatea. Zinez gogo handia behar dute hara joateko eta azterketa egiteko.

llermok kontaktzen digunez. *“Zenbait azterketa 1.aren bukaeran egiten dira, hots, Baxoa baino lehenago, eta horrela arindu egiten da Baxoko azterketa. Esate baterako, Baxo zientifikoa frantseseko azterketa aurretik egiten da, eta literarioan frantsesa, matematika eta zientziak”.*

Baxoa gaindituta, unibertsitatera joateko moduan dira, baina noski, euskaraz ikasteko aukerarik ez dute Iparraldean. Horretarako, Hegoaldera joan daitezke, eta horrek selektibitatea egin beharra dakar. Iazko ikasturte amaieran 10-12 gazte inguruk egin zuten azterketa hori, baina bidea ez da erraza Gillermok dioenez. *“Europa egin nahi dugun honetan, oraindik oso zaila da ikasketen bateratzea. Hasteko, hemengo ikasketa guztiak baliozkotu behar dituzte, eta gero, tramitazioak, ordainketak... eta selektibitatea egitea. Zinez, gogo handia behar dute hara joateko eta azterketa egiteko.*





Ikasturte berriko borroka

Aurtengo ikasturtea gogotsu hasi badute ere, ez da arazorik gabea izan, eta oraindik konpontzeke da, gainera. Bernat Etxepare lizeoan 2. mailarako beste ikastalde bat idekitzeko adina ordu eskatzen dute. *“Izan ere, ikasle kopurua haziz doa eta 74 ikaslekin hiru talde egin ditugu. Ministeritzak bere irizpideen aurka, 35 ikasletik gora bi talde egitearena alegia, bi ikastalde egiteko orduak ematen baitizkigu soilik”.*

Bordelen bilkura bat egin zuten hango errektorearekin, baina ez zuten baiezkorik jaso. Gauzak horrela, Parisera jotzeko asmoa agertu dute. Hala, Alain Lammassoure Hautetsien Kontseiluko presidenteari eta Max Brissoni hizkuntza ataleko arduradunari gaia Hezkuntza Ministeritzara eraman eta behar dena egin dezaten eta han euskal irakaskuntzari zor dizkioten medioak lortzeko eskatu diete.

Borroka horrekin jarraitu bitartean eta haizeak aldetik noiz joko zain dudelarik, lizeoko ikasleak liburuak eta apunteak hartu eta eskolara doaz egunero. Gauza bera egiten dute irakasleek. Eguneroko jarduna euskaraz egiten jarraitzen dute, eta argi dago inork ez dituela geldituko. •

Frantses sistemak unibertsitate guztiei buruzko informazioa bidaltzen die, erraztasunak eman... eta zinez, Hegoaldera joatea traba handiak pasatzea da”. Horrez gain, bada beste traba bat ere, arazo larriena agian: programaketak ez direla berdinak.

Edozein modutan, lehen Parisera eta Madrilera joan behar zuten eta han gaztelaniaz egin azterketa. Egun, UNE-Den bitartez eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz euskaraz egin dezakete eta gertuago, eta horrek ikasle gehiago animatzen ditu.

Ikasmaterialak


Gillermok aitortu digunez euskarazko ikasmaterial oso gutxi daukate. Euskara ikasgairako baliagarriak zaizkie Hegoaldeko argitaletxeen liburuak, baina gainontzekoetarako ez, programaketa ez baita berdina. *“Frantseseko dokumentuen itzulpen asko erabiltzen ditugu eta frantsesezko manualak ere baditugu, gero azterketak frantsesez egin behar baituzte. Irakasleok geronek egindako apunteetaz baliatzen gara askotan”.* Apunte eta lan horiek bildu eta argitaratzeko asmoa zuten, baina denbora anitz eskatzen duenez, oraindik egiteke duten lana da.

Gurasoak eta instituzioak

Gurasoak Ama Eskolan, Lehen Mailan eta kolegioan baino urrunago daude lizeoan, baina horrek ez du esan nahi esku hartzen ez dutenik. Ekonomikoki laguntzeaz gain, hainbat molde daude parte hartzeko: Seaskako egituretan, lan batzordeetan, irakasleekin batera egiten dituzten bileretan...

Instituzioekiko duten harremanari buruz, harreman eta lotura desberdinak daudela azaldu digu lizeoko zuzendariak. *“Udalak ama-eskola eta lehen mailak laguntzen ditu; adibidez, berak egiten ditu eraikinean egin behar diren gauza guztiak. Baina lizeoarekin ez du inolako harremanik. Gauza bera gertatzen da kolegioekin, hauetaz Foru Aldundien antzeko funtzioa betetzen duen Kontseilu Orokorra arduratzen da. Lizeoen kasuan, Eskualdeko Kontseiluak arduratzen dira, gurea esaterako, Akitaniako Eskualdearen ardurapean dago. Kuota bat ematen die lizeo guztiei eskola kontratua dela eta”.*

Laguntza horrez gain, gobernu administrazioak ere ematen die kuota bat eta irakasleen ordainketa ere haren esku dago. Gainontzekoa, gurasoen gain gelditzen da.



Lagun arteko hizkerarekin jolasean

ikastaroak! ikastaroak! • ikastaroak! ikastaroak!

Ezaugarriak

Norentzat

13-16 urteko gazteentzat, D eredian ikasten dabilenentzat.

Vertarako

Gazteek euskarazko lagunarteko hizkeraren trikimailuak bereganatzeko.

Nola

Hizkerarekin jolastuz eta lagun-ikaskideekin dibertituz.

Ikastaroak jasotzeko lekua

Eskatzaileek aukeratzen dutena: beren ikastetxea, beren elkartea...

Eskaintza zehatza

10 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko 5 saio gazteekin.
- Gaiak haserretzea, adarra jotze eta ligitzea.

8 ORDUKO PROGRAMA


- 2 orduko 3 saio gazteekin eta 2 orduko saio bat irakasleekin.
- Gaiak haserretzea, adarra jotze eta ligitzea.

2 ORDUKO PROGRAMA

- 2 orduko saio bat gazteekin.
- Gaiak ligitze eta haserretze eta adarra jotzea.

OHARRAK

Irakasleek gida didaktikoa jasotzen dute, saioen jarraipena egiteko. Ikasleek, beriz, *Hitzontzia* izeneko liburuxka bana, eta, horrez gainera, *Kuxkuxeroa* txat-gunean parte hartzeko aukera eskaintzen zaie.




Ttakun Kultur Elkartea • Tel.: 943 371448 • aisia@ttakun.com

Urtxintxa Eskola • Tel.: 943 370033 • jolasak@urtxintxa.org

Pirritx eta Porrotx

Patata, patata!



www.katxiporreta.com

Saharako basamortutik Euskal Herrira iritsi den lagunarekin argazkia egingo dugu pailazook. Gurekin batera atera nahi duzu?

Pirritx eta Porrotxen abentura berriak zure herriko antzokian, kiroldegian, plazan, eskolan... Eskaintza bereziak ikastetxeentzat, 750 eurotik aurrera

INFORMAZIOA ETA KONTRATAZIOAK

Tel.: 943 332 691 / 629 349 715 • 118 Postakutxa • 20160 LASARTE-ORIA • www.katxiporreta.com